

Elgoibar - 1310. zenb.
XXX urtea - 2023-12-22



TDKIKOM

BARREN



**40 urte, Mendaro
herri egin zutenetik**



Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Lehenik eta behin, opariak ematen eta antolakuntzan ibili zareten guztioi eskerrik asko.
 Zuei esker ia 2.000 opari banatuko ditugu Elgoibarko Izarraren aldeko tonbolan.
 Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera, Kalegoen plazan batuko gara!



Opari bonoak



Aurikularrak



Sandwicherak



Telebista



Burkoak



Baloiak



Ilerako plantzak



Dron-ak



Miniaturazko erraldoiak



Ordulariak



Mailetak



Bizikleta



Aire frijigailua



Torlojutzaila



Likuadora



Berogailua



Telefonoentzako euskarriak



Urdaiazpikoak



Ardo botilak



Realeko kamiseta eta sudadera



Bizikleta kaskoa



Txalekoak



Otarrak

eta sari gehiago...



ESKERRIK ASKO GUZTIOI!

- 2. estankoa
- 40-15 Tenis elkarte
- Abatetxe landetxea
- AEK euskaltea
- Agurtzane ile-apaindegia
- Ainara Arnaiz
- Alfonso Guillo (Leok`k)
- Alire estetika
- Alcorta Forging Group
- Alkorta Bakailauak
- Altzola Berazeta baserria
- Amagola gozo denda
- Amaia fruta denda
- Ametsa kafetegia
- Ana Mosacula xaboiak
- Ane arte tailerra
- Ander Mujika
- Andres Alberdi
- Antxustegi zeramikak
- Anua errektifikatuak
- Aranburu bitxi denda
- Arauri lurrindegia
- Armueta harategia
- Arriere De La Maison De Izaro
- Arrizabal Elkarte
- Astigarraga Kirolak
- Atelier Oihana moda
- Aterpe taberna
- Azkue argazkiak
- Barrutia optika
- Beitia Arriola fisioterapia
- Beitia Arriola hortz klinika
- Belaustegi jatetxea
- Beristain Mekanizatuak
- Berkoa S. Koop.
- Bertsozale elkarte
- Bitxi Bitxi bitxiak
- Bizipoza elkarte
- Bizkor bizikletak
- Bronymec
- C.D. Elgoibar
- Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturakak
- Cynthia Pazmiño
- Danele Sarriugarte
- Danobat Group
- Darama bitxiak
- Debabe Udal Euskaltea
- Dislegi Debabarrena Elkarte
- Doña Mercedes okindegia
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Ecenarro lentzeria
- Egur Arte tailerra
- Elena ile-apaindegia
- El Gautxo pizzeria
- Elgoibarko EH Bildu
- Elgoibarko Igeriketa taldea
- Elgoibar Ikastola
- Elgoibarko PSE-EE
- Elgoibarko Udala
- Elkar argitaletxea
- Eñaut Elorrieta
- Eroski Bidaiak
- Eroski Maala
- Errigora taldea
- Errosario hagin klinika
- Esther Ibaguren
- Etxepe
- Etxe-Tar
- EITB
- Euskaltzaleon Topagunea
- Exclusivas Pelegrin
- Farmazabal parafarmazia
- Ferpi modak
- G&M jantzi denda
- Gaindu
- Galle-Tiak
- Gararock taldea
- Garate jantzi denda
- Gertu fisioterapia
- Gertu koop. E.
- Go!azeneko aktoreak
- Go Bike bizikletak
- Goialde
- Grabados Laser 2d
- Hair` s ile-apaindegia
- Haritz Euskal Dantzari Taldea
- Herri Eskola
- Ibai-Ondo erretegia
- Iban Urizar
- Ibarrenea okindegia
- Ibon Serrano
- Idama ileapaindegia
- Idoia azpilikueta
- Ikus Optika
- ILS hizkuntza akademia
- IMH Campus
- Iñigo Azpiroz
- Industrias Banat
- Industrias Metala
- Ipintza margoak
- Irati Agirreazdegi
- Iria umeen arropa denda
- Iriondo Altzariak
- Iriondo Kirolak
- Irune Arriola Andonegi botika
- Irune Iriondo
- Iturri taberna
- Izakara estudioa
- Jai Alai taberna
- Jakoba Errekondo
- Jaxone Osoro
- Javier Elortza
- Jesus Mari Makazaga
- Jon Magunazelaia
- Jon Olivares
- Jose Alberto Eguren
- Jose Antonio ile-apaindegia
- Julia Arregi
- Juantxo burdindegia
- Kala loradenda
- Karakate Bizirik
- Karkizano mertzeria
- Katxalote diseinuak
- Katxiporreta
- Kilimon Trail (MTE)
- King-Kong taberna
- Kifü Tools
- Kiroldegiko taberna
- Kultur Kafea
- Kutxabank
- Laboral Kutxa Txirrindulari taldea
- Lagun Taldea Txirrindulari Elkarte
- Lagunak Textil-Hogar
- Larre okindegia
- Leire Garate
- Leire ile-apaindegia
- Lete jantzi denda
- Lizagasar sagartokixa
- Maddi bitxiak
- Magi bitxiak
- Maite Maiora
- Maite Rementeria
- Mancisor
- Mapfre aseguruak
- Maraca Diablo musika taldea
- Marcajes Telleria
- Maria Urizar ile-apaindegia
- Mausitxa baserria
- Mecanizados Enean S.L.
- Mekanosa
- Meraki ile-apaindegia
- Mendaroko liburutegia
- Milar Bire elektrogailuak
- Mintxeta taberna
- Mintxeta Atletismo Taldea
- Morkaiko Mendizale Elkarte
- MTE Milling Machines
- Munlet musika taldea
- Mutua General de Seguros
- Muzak musika taldea
- Nalai oinetakoak
- Naiz komunikabideak
- Nik Behar Dut diseinua
- Noaua! Kultur Elkarte
- Oin berri podologia zentrua
- Oinherri elkarte
- Olaia Martinez estetika zentroa
- On informatika
- Olaia Irigoien
- Patxi Azpiroz
- Pausoka ekoizpenak
- Pitxintxu opari denda
- Puntueus fundazioa
- Rural Kutxa
- Sanson aroztogia
- Sahatzu harategia
- Salento pizzeria
- Sanlo Eskubaloi taldea
- Sigma jatetxea
- Sua Crossfit
- Suministros Evia
- Suministros Industriales Olalsa
- Surya belar denda
- Swisslan enpresa
- Tantaka taberna
- Tokikom elkarte
- Txankakua Elkarte
- Txillarre ekodenda
- Tximi Mecanizado de Precisión
- Txomin harategia
- Udal ludoteka
- Uxue Alberdi
- Uzuri optika
- Vanesa Mateos
- Xarlem Creations
- Yudego farmazia
- Zalao Arnaiz
- Zazpi informatika
- Ziarra harategia
- Zu+ni oihalak
- ...



BELAUSTEGI
— BASERRIA —

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak,
Lekua har dezatela
bakeak eta maitasunak,
Urte berri on, lagunak!*

SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Ipurdia, zubia eta enpatia



"Zorionez, besteen arazoetaz jabetu, ulertu eta lagundu nahi dutenak ere badaude"

Unibertsitateko irakasle batek hauxe esaten zigun: kaka egin aurretik ipurdia garbitzen duten pertsonak egon badaudela mundu honetan. Bidean topatu izan ditut horrelako batzuk, ez ditut gustuko bidelagunak, besteak beste, jeneralean ez baitira batere enpatikoak izaten. Euren ipurdia garbi dagoen bitartean ez zaizkie batere axola besteen arazo eta gorabeherak. Nire hipotesia da pertsona horiek txikitan gabeziaren edo traumaren bat bizi izan zutela; eta horregatik, batez ere, besteei laguntzeko sentimendu hori ez dagoela euren bihotzetan. Eta agertuko balitz, enpatia izpi txikiena ere itzaltzeko gaitasuna dute; euren mesedetan soilik, noski.

Zorionez, besteen arazoetaz jabetu, ulertu eta lagundu nahi dutenak ere badaude. Borondatea eta enpatia ez dute faltan izaten. Askotan, batek arazo ilun konponezina ikusten duen lekuan, beste batek indarrak edota argibideak eman diezazkioke arazo hori zuzen bideratzeko. Era horretara, arazoa edo kezka duen horri ideia berriak, ikuspuntu ezberdinak eta bestelako estrategiak gomendatu ahal dizkio. Hitz batean, arazotik konponbidera heltzeko bideak eskaintzen dituzte, eta zubilana egiten.

Nire lanpostuagatik, aurreko lan horiez gain, zubiak eraikitzeak ere egitea egokitu izan zaizkit. Zubia, izatez, arazo baten konponbidea da: erreka, trenbide edo dena delako oztopo fisiko batek banatutako bi puntu era egokian airetik lotutako bidea da. Eta era egoki hori lortzearen atzean daude ikasketaz egindako asmamena, teknikaren eta artearen fusioa, sentsibilitatez betetako irudimena eta inspirazioa, besteak beste. Banatuta dauden bi puntu bata bestearekin txukun komunikatzeko hori guztia behar izaten da.

Orain ariketa egin *persona* hitza *puntu* hitzaren ordeztarritara. Zubia hizkuntza bihurtuko da. Bikote bitxia, zubiak eta hizkuntzak osatzen dutena, eta bitxiago bi osagaion arteko enpatia; hizkuntza baita gure arteko arazoak konpontzeko zubi, edo hala izan behar luke behintzat.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Oharra

Eskuartean duzun hau da 2023ko azken zenbakia. Eguberrietako oporren ostean, urtarrilaren 2an itzuliko gara lanera, eta hilaren 5ean jasoko duzue hurrengo BARRENA. Ondo pasa eta urte berri on!

BARREN




I. URTEURRENA

Sebastiana Sodupe Esnaola

2022ko abenduaren 19an hil zen, 93 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 23an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Denbora igaro arren,
zure oroitzapenak gurekin dirau.***

Beti gogoan, seme-alabak eta bilobak.



I. URTEURRENA

Manuela Zabala Larrañaga

2022ko abenduaren 31n hil zen, 97 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, astelehenean, urtarrilaren 1ean, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako eliz parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geratuko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak





Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Elbarrituentzako aparkalekuak oztopatu dituzte zabor

edukiontziek: "Birziklatzean sinisten dugu, eta edukiontzia berritzea ondo dago, baina elbarrituentzako aparkalekuak ez dira asko eta ez da bidezkoa edukiontziekin oztopatzea. Denbora luzez dago hau horrela, eta uste dugu badela ordua soberan dauden edukiontzia kentzeko".



Merkatu plazan dagoen beirateari buruzko informazioa nahi nuke, eta bide batez, jakin nahi nuke eraikin berria egiterakoan mantenduko ote duten:

Hirigintza Sailetik esan dutenez Merkatu Plazako beiratea ez dago Udal katalogoan jasota, eta ez dago aurreikusita eraikin berria berriz jartzea. Bestalde, beirateari buruzko informazioa eskuratzeko Udal artxibora jo daitekeela adierazi dute, eta hori bideratzeko Hirigintza Sailean eskatu daiteke laguntza.



Mintxetako kirol guneari buruzko bi galdera luzatu ditu herritar batek: Mintxetako igerileku handian jarri al daiteke arrapala txiki bat sartzeko eta irteteko mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonentzat, sartu edo irten nahi duten bakoitzean garabia erabiltzeko monitorei deitu beharrik ez

izateko?. Bestalde, Mintxetako harmailan gaur egun ez dago aukerarik gurgildun aulkientzat. Zer asmo du Udalak?.

Udaletik eskerrak eman dizkiote herritar honi horrelako iradokizunak egiteagatik. Erantzuna emateko, teknikoki analisi bat behar duen gaia dela gaineratu dute. Gaia aztertu eta bideragarritasuna aztertuko dutela esan dute.



Eskerrik asko Jose Mari 'Txillarreri', Sallobenteko zubia garbitzeagatik:

"Emakume talde batek laguntza eskatu genion, eta birritan pentsatu gabe, berak garbitu zuen zubia. Lan ederra egin duzu, Jose Mari. Mila esker".



Zabaldute Elgoibarren parrokiako jaiotza

A tzozabaldute Elgoibarren San Bartolome parrokiako jaiotza mekanikoa, eta urtarrilaren 14ra arte egongo da ikusteko aukera. Aste barruan, arratsalde bisita ahal izango da jaiotza, 17:00etatik 20:00etara bitartean, eta zapatu, jai bezpera eta jaiegunetan, berriz, goiz eta arratsalde: goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsalde, 17:00etatik 20:00etara. Salbuespena abenduaren 30a izango da (zapatua). Egun horretan, 09:00etatik 20:00etara izango dute zabalik. Aurtengo berrikuntzak tornugile bat, artzain bat eta iturri bat dira.



23 urteko Elgoibarko bizilagun bat hil da Azkaraten errepide istripuan

Istipu larria gertatu zen Elgoibar eta Azkoitia batzen dituen Azkarateko tunelean joan zen barikuan. 17:00ak aldera bi autok elkar jo zuten, eta istripuaren ondorioz lekuan bertan hil zen 23 urteko emakumea,

madrildarra izatez, baina Elgoibarko bizilaguna azken bi urteetan. Azaroaren 15ean beste istripu bat izan leku berean, eta orduan 33 urteko Zaragozako bizilaguna hil zen.

Kantaldia eta giltza-katea antolatu dituzte presoen eskubideen alde

Elgoibarko Sarek kantaldia antolatu du domekarako, preso, errefuxiatu eta deportatuen eskubideak errespetatu daitezela eskatzeko. Kalegoen plazan izango da kantaldia, 19:00etan hasita, eta herritarrei dei egin diete parte hartzera. Saretik jakinarazi dute bereziki Josu Lariz elgoibartarra izango dutela gogoan kantaldian. Era berean, abenduaren 29rako

giltza-katea ere antolatu dute. Kalegoen plazan hasiko dute giltza-katea, 20:00etan, eta Maalan bukatuko dute, 20:30ak aldera. Bidea trikitilariak girotuko dute. Sabuespenezko legea bertan behera lagatzeko eta euskal presoei gainerako preso guztiei moduan etxerako bidea onartzeko eskatuko dute bi ekintza horien bidez.

Nagusilanentzat hamar urtez boluntario aritu diren zortzi lagun omendu dituzte

Elgoibarren hamar urtez Nagusilanentzako boluntario lanean jardun direnak omendu zituzten joan zen azaroaren 30ean, egindako lanagatik. Zortzi dira San Andres egunez aitortza jaso zutenak: Antonio Viñaras (22 urte boluntariotzan), Mari Bustamente (20 urte), Manuel Salegi (19 urte), Petra Carrasco (18 urte), Fabri Hernandez (18 urte), Lucia Elorza (17 urte), Trini Godoy (14 urte) eta Pedro Urkidi (13 urte). San Lazaro egoitzan bizi diren eta Eguneko Zentrora joaten diren elgoibartarrei laguntza emozionala ematen saiatzen dira denak:



Txankakuak banatu ditu Ginkanako sariak



Banatu dituzte Txankakuak azaro erdialdean hasi zuten ginkanako sariak. Guztira, 5.000 euro banatu dituzte saritan: 1.000 euroko bat eta 200 euroko hogeit. Mari Jose Ostolazak jaso du sari nagusia, 1.000 eurokoa, eta ondorengo hauek 200 euroko saria eskuratu dute: Nerea Barrutia, Naiara Ibarra, Maria Isabel Aizpurua, Ainhoa Urbietta, Montse Seija, Rosi Perez, Ainhoa Mateo, Ana Artetxe, Nuria Salegi, Rufina Roman, Ana Andonegi, Juan Luis Astigarraga, Marian Zabala, Maite Zabala, Maier Leiaristi, Esther

Lizarriturri, Maialen Arberas, Sandra Pinacho, Maria Lopez eta Amparo.

Horrez gain, gaur, hilak 22, Gabonetako sei otarren zozketa egingo dute, elkarteko dendetan erosketak egin dituztenen artean. Urtarrilaren 9an, bestalde, 1.800 eurora arteko hamar erosketa-bono zozkatuko dituzte. Zozketan parte hartzeko elkarteko dendetan erosketak egin behar dira Gabonetan. Erosketa bakoitzeko zozketan parte hartzeko txartelak eskuratuko dituzte bezeroek.

'Horra, horra, Biraka' dantza ikuskizuna antolatu dute Eguberrietarako

Biraka dantza taldeak Eguberrietarako emanaldi berezia antolatu du. Abenduaren 28an izango da, 18:30ean (Eguraldi txarra iragarriko balute, bezperan egingo lukete). 130 dantzarik hartuko dute parte guztira. Nagusiek Santa Ana kalean hasiko dute kalejira, eta gero, Katanarra arkuaren aurrean egingo dute dantza. Errosario kalean behera jarraituko dute gero dantzan, San Frantzisko iturrira arte. Dantzari txikiak, bestalde, Maalatik irtengo dira. King-Kong inguruan egingo dute dantza, eta San Frantzisko iturri aurrean elkartuko dira nagusien taldearekin. Bi dantza



egingo dituzte elkarrekin, eta Kalegoen plazara abiatuko dira denak batera. Han dantza emanaldi berezia egingo dute.

Eguberrietan hiru kalejira egingo dira Elgoibarren herriko hiru eragileren eskutik

Musikarik gabeko jai gutxi izango dira Elgoibarren, eta Eguberrietan ere irtengo dira kalera Udal Musika Bandakoak, Mauxitxa txarangakoak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolako Betisua txarangakoak. Udal Musika bandakoak abenduaren 24an, domekan, irtengo dira kalejiran. Maalako parkean hasiko

dute ibilialdia, 13:00etan. Abenduaren 26an (martitzena) Mauxitxa txarangakoen txanda izango da. 18:00etan abiatuko dira kalez kale (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan egingo lukete emanaldia). Eta abenduaren 29an, azkenik, Betisua txarangakoak ibiliko dira kaleak girotzen, 18:30etik aurrera.

Urteko gaztarik onena aukeratuko dute Gabon Zahar Ferian



Abenduaren 30ean izango da aurten Gabon Zahar Feria, eta urtero bezala, ekintzaz beterik dator. Goizean goizetik baserrietako produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izango da herriko gune desberdinetan, eta 11:00etatik aurrera Eusko Label markako sahieski pintxoak jarriko dituzte salgai Elgoibar Ikastolako txosnan, Kalebarren plazan. Animaliak eta baserrirako tresneria ere egongo dira, eta Maalako parkean Elgoibarko artisauek euren lanak jarriko dituzte. Baltzola eta lagunak trikitilariak ibiliko dira kalean zehar, eta udaletxean Uxue Alberdi, German Meabebasterretxea eta Millan Telleria bertsolariak arituko dira kantuan.

Lehia ere ez da faltako Gabon Zahar Ferian. Barazki eta fruta posturik onenek saria jasoko

dute, eta horrez gain, 2023ko gaztarik onena aukeratzeko txapelketa ere egingo dute. Gazta txapeldunen txapelketa izaten da Elgoibarkoa, hau da, urtean zehar gazta txapelketaren bat irabazi duten gaztagileek hartzen dute parte. Aurten hamar partaide izango dira: Mausitxa, Agerre Buru, Beñat Egaña, Aizpea, La leze, Kortaria, Baztarrika, Azkarra, Patxi Lopez de Uralde eta Eneko Goiburu. 11:30ean hasiko da txapelketa, udaletxeko udalbatza aretoan.

Aldarrikapenerako eta elkertasunerako tarterik ere egongo da feria egunean, izan ere, Karakate Bizirik eta Baso Biziak taldeek talo solidarioen postua jarriko dute Salento aurrean.

Gabon Zahar Feriako egitarau guztia agendan duzue irakurtzeko.

18 lanpostu publiko Elgoibarko Udalerako

Elgoibarko Udalak 2023ko Lan Eskaintza Publikoa onartu du, udaleko langileen behin-behinekotasuna murrizteko eta lanpostuak egonkortzeko. 12 txanda librekoak izango dira, eta gainerakoak barne sustapenekoak: Udaltzainburua (barne promozioa), agente lehena (3, barne promozioa), HAZeko administrari laguntzailea (barne promozioa), administrari laguntzailea (txanda libre), administraria (2, txanda libre), informatikako teknikari laguntzailea (txanda libre), partaidetza eta modernizazio teknikaria (txanda libre), hirigintza eta zerbitzuetako AOT (txanda libre), arkitekto teknikoa (txanda libre), arkitekto teknikoa (txanda libre), berdintasun, aniztasun eta lankidetzatza teknikaria (txanda libre), ofizio anitzeko ofiziala (barne promozioa), lantaldeko arduraduna (txanda libre), ofizio anitzeko langilea (2, txanda libre).

Xakean ikasteko tailerra antolatu dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Elgoibarko xake taldearekin lankidetzan, xake jokoa ikasi eta hobetzeko tailerra antolatu du Jubilatuen Biltokiak urtarrierako. Astelehen eta barikuetan izango dira eskolak, 11:00etatik 12:00etara, Jubilatuen Biltokian bertan. Izena emateko: 943 740 526 edota jubelgoibar@gmail.com.



Buon Natale

Frohe Weihnachten

Merry Christmas

Ein gutes neues Jahr

圣诞节快乐

Gabon zoriontsuak

Joyeux Noël

Felice Anno Nuovo

Happy New Year

Felice Anno Nuovo

Feliz Año Nuevo

Feliz Navidad

Buon Natale

新年快乐

Urte berri on

Joyeux Noël

Bonne Année

Zorionak

ILSko langileen partetik...

Zorionak eta urte berri on!

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES **ils** **IMI** CAMPUS

■ 40 urte, ametsa egia bihurtu zutenetik

✍️ Ainara Argoitia / 🏛️ Mendaroko Udala



Juanito Loiola, Mendaroko lehenengo alkatea, udaletxetik irteten.

Abenduaren 30ean 40 urte beteko dira Mendaroko Udala estreinakoz eratu zutenetik. 1983ra arte, Mutriku eta Elgoibar udalerrietako parte ziren Mendaroko lurrak, baina 1976an desanexiorako bidea lantzeari ekin zion herriko talde batek; Garagartza eta Azpilgoeta auzoak Elgoibartik eta Mutrikutik bereizi eta Mendaro herria sortzeko ahaleginari, eta zazpi urte geroago, 1983ko uztailaren 2an, eman zioten Gipuzkoako Batzar Nagusiek herri izendapena Mendarori. Udala, baina, abenduan eratu zuten. Juanito Loiola izendatu zuten alkate.

Ametza bete genuen Mendaro herri eginda", dio Juan Jose Eizagirre zenak, Alaitz Vives kazetariak eta sasoi hartan Mendaro teledistakokameralaria zen Leire Eizagirrek sortutako $1+1=1$ ikus-entzunezkoan. 2003an grabatu zuten dokumentala. Mendaro herria sortzeko prozesua gidatu zuen talde eragileko [gestorako] kideak elkarrizketatu zituzten dokumentalerako eta ikus-entzunezko horixe da 40. urtemugaren harira Mendaroko Udalak abenduaren 29rako antolatu duen ekitaldian proiektatu asmo duena (Udalbatza aretoan, 18:00etan).

Ametsa. Horixe zen mendaroarrentzat udaletxea izatea, herri nortasun edo sentimendua izan bazutelako mendaroarrek, herri izan aurretik ere. "Inork ez zuen esaten mutrikuarra edo elgoibartarra zenik hemen. Gu beti izan gara mendaroarrak, Azpilgoeta eta Garagartza auzoen artean beti izan bazen ere pikea", dio Joseba

Etxeberriak, Mendaroko Udaleko lehenengo idazkarietako bat izan zenak. Baina bazen purrusta arrazoitu bat oso zabaldua Mendaron. Elgoibarrek eta bereziki Mutrikuk bazter lagata zituztela. "Gogoan daukat Azpilgoetakoak udan Errekabarreneko iturrira (Garagartza) etorri behar izaten zirela ur bila ere, urik ez zutelako [Gaur eskualdeko lau udalerriri ematen die ura Mendarok]. Garagartzako partean hobeto geunden, Elgoibarko Udalak beste zerbitzu bat ematen zuelako, besteak beste Mankomunitatean ere sartuta zegoelako, baina Mutrikurentzat Azpilgoeta oso urrutiko auzo bat zen eta utzi xamar zuen", zehaztu du Lourdes Etxeberriak, 1983an Joseba Etxeberriarekin batera Mendaroko Udaleko idazkari izendatu zutenak. Eta egoera hartan, hobe zen, Jose Agustin Arriolak $1+1=1$ dokumentalean dioen bezala, saguaren burua izan lehoiaren buztana baino; Alegia, beti asmatuko ez

bazen ere, hobe zela norbere kontuak norberak kudeatzea, beste baten mende egotea baino.

Aspaldiko eskaera

Gerra aurrean ere, 1929an, ahalegindu izan ziren mendarorak Azpilgoeta eta Garagartzza auzoak Mutriku eta Elgoibartik bereizi eta Mendaro udalerria sortzen, baina, Francisco Franco diktadorea hil ondorenean, Espainiar estatuak trantsizio demokratikorako prozesua hasi zuenean, zabaldu zitzaion Mendarori -eta gaur udalerrri diren beste zenbaiti ere bai, tartean Lasarte eta Astigarragari Gipuzkoan- horretarako aukera. Ordurako Eusko Jaurlearitzak jasoak zituen gai honi zegozkion transferentziak eta berak zuen udal berriak sortzeko eskumena. Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoaren egituraketa arautzeko Lurralde Historikoen Legea onartu zutenean, hiru lurraldeetako batzar nagusien esku utzi zuten eskumen hori. 1976an sortu zuten Mendaron desanexioa bultzatuko zuen batzordea ere, hein handi batean Juanjo Eizagirre zena eta Xabier Pagaldai buru zituena, eta 1977ko otsailaren 9an batzar batera deitu zituzten herritarrak prozesua babesteko nahikoa indar bazuten jakitzeko. Batzar hura mojetako lokalean egitekoa zuten, baina hain bildu zen jende asko, azkenean, Garagartzako parrokian egin behar izan zutela. Babesa ia erabatekoa izan zen, batzarrera bildutakoen %98 inguruk alde bozkatu zutelako. Halaxe, sentimendu batek akuilatuta eta herri oso baten babesarekin, ekin zion ametsa egi egiteko lanari talde hark. Zazpi bat urte luzatu zen prozesua.

Tarte horretan, edozenbat bilera egin zituzten, gehienak Aizpen eta otorduren baten bueltan, eta bilera informatiboak Azpilgoetako abadetxean egiten zituzten. Gizonezkoak ziren talde hartan denak, nahiz izan ziren herria sortzeko ahaleginean beren alea jarri zuten emakumeak ere, bigarren plano batean beti. Batzorde hark Siadecori eskatutako azterketarako galdetegiak

etxez etxe banatzen ibili ziren, esaterako, Lourdes Etxeberria eta haren beste zenbait lagun; emakumezkoak denak. Siadecori eskatutako azterketa lan hartarako atal historiko-administratiboa Jose Mari Lizundia Euskaltzaindiko idazkariordeak egin zuen. Ezinbestekoa izan zen Lizundiak prozesuari egin zion ekarpena; bai eta Jose Manuel Perez Soralezko Udaleko orduko idazkariaren aholkularitza ere. Pagaldairen eskutik bildu zen Lizundia taldera, *Euskararen Liburu Zuria* osatzeko lantaldetik ezaguna zuelako, eta Juan Jose Eizagirrek eskatuta bigarreana.

Primo de Riveraren eta Francoren diktaduretan derrigorrean anexionatu zituzten herrien desanexiorako Durangaldean sortu zuten koordinakundeko kide zen Lizundia, eta Iurretaren desanexioaren esperientzia ekarri zuen Mendarora. 1977an, Garagartzako eliza bete egin zen hark emandako hitzaldia entzuteko. Jose Manuel Perez ez zen desanexio gaietan ibilia aurrez, baina bazuen administrazio kontuetan eskarmenturik, eta berari entzuna da erronkatzat hartu zuela Mendarotik txosten administratiboa egiteko egin zioten proposamena.

Taldean, nor bere pentsakera eta ideologia izango zuen, baina helburu batek batzen zituen eta asmatu zuten prozesua alderdi batek edo besteak monopolizatzeke arriskuari ihes egiten ere. Gorabeherak hamaika izango ziren, eta ezinak edo gairitu beharreko oztupoak ere nahi baino gehiago, baina asmatu zuten taldean aurrera



Foru aldundiko orduko agintariak, 83an, Mendaroko maketari begira.



Mendaroko lehenengo udal korporazioko kide batzuk: Jose M. Garate, Nati Irurtia, Nikolas Zubiaurre, Juanito Loiola, Jose Manuel Herrero, Manolo Zubiaurre eta Jose Mari Mugertza.

egiten. Guruzpe kultur elkarteak antolatuta hainbat ekintza ere egin zituzten herrian, Mendaro herri izateko prozesuari bultzada emateko. Besteak beste, Mendaroko mugetatik mendi-ibilaldia antolatu zuten, Bittorio Garate gidari hartuta; $1+1=1$ lelodun pegatinak atera zituzten, Mendaro herria aldarrikatzen zuten kamisetak ere bai, eta jai-ukituko ekitaldiak ere antolatu zituzten, edozenbat. Eta jakina, dirua biltzen etxex etxe ere aritu ziren, ilusio hutsarekin ezin direlako ametsak gauzatu.

Elgoibarrek eta Mutrikuk nor bere modura bizi izan zuten prozesua, baina ezin esan ezetz borobilik eman zutenik ere. Bitan zatituta egoteagatik, historikoki baztertuta egon zirela arrazoitzen zuten mendarorrek, eta lehenengo hartu-emanetan, Mutrikuko zatia ere bere egitea proposatu zien Elgoibarko Udalak, baina Mutrikuk ez zuen begi onez ikusi aukera hori. Desanexiorako arrazoiak onartu zituzten mutrikuarrek, baina ez ziren konforme agertu euren menpeko Azpilgoeta auzoa Elgoibarri emateko. Hala ere, azken momentuan Mutrikuk berak jarri zuen trabarik handiena. Izan ere, Mendaroko parte askatuz gero, 5.000 biztanletik beherako herria izatera pasatzen zen Mutriku, eta ondorioz diru gutxiago zegokion Foru Aldunditik, Lourdes Etxeberrriak oroitu duenez. Baina zer diren gauzak. Azkenean, elgoibartar bati esker lortu zuen Mutrikuk ordura arteko baldintzei eustea, Joan Mari Garitano arteko elgoibartarrak, garai hartan Gipuzkoako diputatu

zenak, eman baitzion Mutrikuri pribilegio horri eusteko aukera, biztanlegoa galdu arren.

Herri izendapena

1983ko uztailaren 2an izendatu zuten Mendaro herri, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Erreterian egin zuten osoko bilkuran. "Astegun buruzi bat zen. Gehienak lanera joan ziren eta Antonio Piñel, Ricardo Escobar, Jose Mari Garate eta neu joan ginen Mendarotik", oititzen du Anjel Bazterretxea zenak dokumentalean. Poza erabatekoa izan zen. Ametsa egi bihurtu zuten gogotik lan egin ondotik, baina beti bada arantza bat eta orduan ere izan zen zenbaitentzat. Batzordean erabakita zuten herri izendapena lortzen zutenean euretako bat jarriko zutela alkate, harik eta hurrengo hauteskundeak egin arte. Adostua zuten hala egingo zutela eta Juan Jose Eizagirrenen izena zerabilten gehienek ahotan, hein handi batean hark lideratu zuelako prozesu osoa Xabier Pagaldairekin batera. Alderdi politiko gehienek ere ontzat eman zuten, baina EAJK ez. Talde-erabakiaren gaintetik, EAJK legeari heldu zion, alkate euretako bat jarri behar zela babesteko, eta 1983ko otsailean eman zieten herritarrei berria batzordekoek: euren gogoia beste bat bazen ere, aurrerantzean ez zirela eurek arduratuko Udala kudeatzeaz. Frankismo osteko lehenengo hauteskunde demokratikoetan, 1979koetan, botoa Elgoibarko eta Mutrikuko udalak osatzeko eman zuten, hurrenez hurren,



1983ko abenduaren 30ean, Udala eratu ostean, Santuarango garajejan egin zuten bazkariko argazkia.

garagartzatarrek eta azpilgoetarrek, eta 83an boto horietatik hartu zituzten aintzat Mendaroko udal korporazioa osatzeko (EAJk 6 zinegotzi, HBk 1 eta PSOEk 2). Juanito Loiola jeltzalea eta Gestorako kidea izendatu zuten alkate.

Pentsatzekoa da ez zuela hasiera erraza izango Loiolak zipi-zapa haren erdian, eta are gutxiago, giro hartan 0-tik hasteari 1983ko abuztuaren 26ko uholdeek Mendaron eragin zuten triskantza kontuan hartuta. Herria sortzeko prozesuan egindako gastuak ordaindu barik, zorrari zorra gehitu zitzaion, eta halaxe hasi zuen abenduaren 30ean Mendaroko Udalak bere ibilbidea, zorrak lepo eginda. Prozesuan zehar egindako gastu asko zeuden ordaintzeko, tartean, Soralezko idazkariak egindako lana eta gerora Mendaroko bi auzoak lotzeko ingeniari eta arkitekto talde batek egindako proiektu arranditsua. "Mendaroko bi auzoak lotzeko, Florentziako Vecchio zubiaren pareko bat eraikitzea proposatu zuten. Errekabarren zubia baino hamar handiz handiagoa izango zen zubia, eta etxeak izango zituena bere luzeera osoan. Teoria ona zen, egingarri zela zioten izen handiko profesional haiek, eta sinistuta, hara-hona ibili ziren Udalekoak maketa harekin, baina gaurko begiekin ikusita lotsagarria ere bazen; gehiegia", esan du Lourdesek. Eta gehitu du: "Akordatzen naiz Jose Antonio Ardanza orduko Ahaldun Nagusiak Udalaren osaera eguneko ekitaldira ekarri zuen 20 milioi pezetako txekak eman zigula arnasa pixkat.

Xabier Albistur Gipuzkoako Ogasun diputatua, Imanol Murua Kultura diputatua, Xabier Aizarna Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria eta eskualde osoko alkateak eta gehiago ere etorri ziren lehenengo egun hartan". Gestorako kideak ere gonbidatu zituzten ekitaldira. Udalaren osatzea handitasunez ospatu zuten Mendaron. Jon Azpillaga, Imanol Lazkano, Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* eta Joxe Agirre gonbidatu zituzten bertsotan egitera, herriko dantzari eta txistulariek dantza emanaldia egin zuten Mendarozabalgo plazan, eta ondoren, agintari, bertsolari eta herriko gainerako beste zenbaitek elkarrekin bazkaldu zuten Santuarango garajejan. Zabale anaia trikitilariak ume ageri dira egun hartako argazkitan, Udal korporaziokoek eta Aldundiko agintariek bete zuten mahaiaren ondoan.

Mendarozabalgo 5. zenbakian zabaldu zuten udaletxea eta hantxe hasi ziren lanean Lourdes eta Imanol idazkariak. "Garaje batean sartu gintuzten. Hutsa zegoen dena, eta egunero joan behar izaten ginen Elgoibarrera ez bazen Mutrikura dokumentazio bila, ez geneukalako ezer. Hala hasi ginen dokumentuak eta ereduak pilatzen, hutsetik", dio Imanolek. "24 urte zituen Imanolek eta 25 nik, eta gaztetasunak ematen duen ausardia hori geneukan. Ausardia, inkontzientzia puntu bat eta ilusioa, ilusio handia. Mendaroren historian sekula lortua den gauza handiena lortu genuen: legez herri izatea", gehitu du Lourdesek. ■

Komunikazio arloan bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa sinatu du Elgoibarko Izarrak



Elgoibarko Izarrako lehendakari Amaia Sastre hautu estrategikoa sinatzen.

Bailarako lau euskara elkartek, tartean Elgoibarko Izarrak, tokiko komunikabideak bailara mailan egituratzearen aldeko adierazpena sinatu dute eta, jakinarazi dutenez, urtea hastarekin batera emango dute lehen pauso garrantzitsua, webgune guztiak berritu eta plataforma berean ezarrita.

A benduaren 11n Debabarreneko lau euskara elkartetako lehendakariak batu ziren Elgoibarren —Elgoibarko Izarra, Ermuko Euskal Birusa, Soroluzeko Pil-pilean, eta Debako Zuhatza—, bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa sinatzeko.

Adierazi dutenez, datozen hilabeteetan lau elkarteotako komunikabideek —Ermuko eta Mallabiko *Drogeteniturrri*, Soroluzeko *Pil-pilean*, Elgoibarko eta Mendaroko *BARREN* eta Debako *Berriketan*— euren arteko elkarlana indartuko dute eta bailara mailan egituratzeko pausoak emango dituzte, "komunikazio talde sendoagoa" eraikitzeko. "Uste dugu elkarrekin jardunda gaitasun handiagoa lor dezakegula gure komunikabideak berritzeko, izaera multimedia indartzeko, gure profesionalen formazioa eta lan-

baldintzak hobetzeko... Eta, horrela, herritarrei kazetaritza ekoizpen erakargarriagoak eta kalitatezkoagoak eskaintzeko modua izango dugula", azaldu dute.

Autonomia eta elkarlana

Bi oinarri nagusi zehaztu dituzte bide horretan aurrera egiteko: "Autonomia eta elkarlana". Autonomia, "hedabideek komunikazioan zentratutako egitura eta funtzionamendua beregain izan dezaten", eta elkarlana,

Elkarlana indartuko dute eta bailara mailan egituratzeko pausoak emango dituzte, "komunikazio talde sendoagoa" eraikitzeko



Elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak Kultur Etxean egindako agerraldian.

komunikazioa hain azkar aldatzen ari den garaiotan, "bailarako hedabideekin eta gainerako euskarazko tokiko hedabideekin elkarlanean jardunda hobeto eta errazago" lan egin ahalko dutela uste dutelako.

Hala, lau euskara elkarteek konpromiso irmoa adierazi dute komunikabideei behar duten "laguntza eta babesa" eskaintzeko, norabide horretan aurrera egin dezaten.

Erakundeen babesa

Elkarteetako lehendakariak eta herri komunikabideetako lankideak ez ezik, zenbait erakundetako ordezkariak ere parte hartu zuten Elgoibarko agerraldian. Bertan izan ziren, besteak beste, Ermuko, Sorluzeko, Elgoibarko, Mendaroko eta Debako udaletako ordezkariak; Tokikomekoak eta Debegesakoak; Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundietako euskara zuzendariak; eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaria. Guztien artean, erakundeak babes zabala adierazi zioten egindako hautu estrategikoari.

Proiektu irekia

Ekitaldian azaldu zuten, bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa hiru urteren ostean iritsi da. Izan ere, eskualdeko komunikabideek 2020an ekin zioten euren arteko elkarlana indartzeko gogoeta prozesuari eta hiru urteotan

Eskualdeko lau komunikabideek euren webguneak Tokikomen plataforma digital bateratuaren bidez argitaratuko dituzte

horretarako aukera teoriko eta praktikoak landu dituzte elkarrekin, Alberto Etxeandia aholkulariaren laguntzarekin.

Oraingoz, hastapeneko prozesu horretan parte hartu duten lau elkarteak eta komunikabideak erabaki dute bailaratzearen aldeko hautu estrategikoarekin bat egitea, baina, adierazi dutenez, proiektua "irekia" da eta etorkizunean ere zabalik izango da proiektuarekin bat egin nahi duten eragileek bertan parte hartzeko.

Urtarrilean webgune berriak

2024arekin batera bistaratuko da elkarlanaren bidean emandako pauso kualitatibo nagusienetako bat. Izan ere, bailarako lau hedabideek euren webguneak berritzea erabaki dute. Tokikomen plataforma digital bateratuaren bidez argitaratuko dituzte, eskualdeko udal guztiek finantzatu duten inbertsio planari esker. Hortaz, urtarrilean *barren.eus* atari berria aurkeztuko dugu.

Webguneak berrituta, toki komunikabideek Interneten duten jarduna indartu eta garatu nahi dute, herritarrei eduki gehiago eta modu erakargarriagoan eskaintzeko.

MIKEL CORNEJO

Musikaria

 Ainhoa Andonegi

Mikel Cornejok (Elgoibar, 1971) disko berria dauka, eta ondo bidean, bihar argitaratuko du Interneten. Spotify, Itunes, Amazon Music edota Youtube plataformetan egongo da eskuragarri, eta doan deskargatu ahal izango da. C69 da bere izen artistikoa, eta hamaikagarren diskoa du hau. *New age* izena ipini dio, eta gaur egungo gizarteari abesten dio. Musika elektronikoa da, ordenagailuarekin eginikoa, baina pop eta indie estiloaren ukitua ere nabari zaio. Letrak berak idatzi ditu, abesti batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz, eta bideoklipa ere sortu du inteligentzia artifizia erabilia.

'New Age' izeneko diskoa sortu duzu, zure hamaikagarrena. Kontatuko al diguzu nolakoa izan den prozesua?

Hamaikagarren diskoa da, bai, eta hau izan da lasai eta denboraz egin dudana lehenengoa. Ez naiz oso aditua promozioan, eta jende askok ez daki diskoak egin ditudanik ere, baina hamaika ditut dagoeneko!. Pandemia aurretik hasita nengoen, baina gero etena izan nuen. Azken urte eta erdian lasai ibili naiz, eta diskoari eskaini diot ia nire denbora guztia. Letrak idatzi ditut, musika sortu, abestu eta grabazioa ere etxean egin dut. Txakurrak zaunka hasten zirenean geratu egiten nintzen, baina bakarren bat sartu da diskoan. Zorionez, musikak estaltzen ditu eta ez dira entzuten. Hamaika abestiz osatuta dago diskoa, horietako hiru euskarazkoak dira eta bat instrumentala. Nik ez ditut instrumentuak jotzen, dena ordenagailuarekin egin dut. Musika elektronikoa eta pop musika uztartu ditut, elektropop estiloa dela esango nuke, indie ukitu batekin. Ez ditut soinu elektronikoko gogorrak erabili.

Diskoa ez ezik, oraingoan bideoklipa ere sortu duzu.

Bai, estreinakoz egin dut bideoklipa. Hasieran lagun batekin grabatzea pentsatuta neukan, ni agertuta aktore moduan, baina azkenean adimen artifizia erabili dut.



“Egungo gizarteari eta neure buruari abestu diot diskoan”

Google-ek doan eskaintzen duen Genmod plataforma erabili dut irudiak sortzeko, eta Cutcup programarekin editatu dut bideoa. Adimen artifzialarekin txundituta geratu naiz. Youtuben ikusi nuen adimen artifzialari buruzko bideo bat, eta atentzioa eman zidan. Horrelako gauzak gustatzen zaizkit, eta saltseatzen hasi nintzen. Diskoaren azala ere adimen artifzialarekin eginda dago. Izugarria da mundu hau, eta niri izugarri gustatzen zait. Bideoa oso ondo geratu da. Abesti horretan gaur egungo posturoa salatzen dut, eta irudiak

oso ondo aukeratu ditu adimen artifizialak. Izugarria izan da! Ordu pila bat sartu ditut, baina oso ondo pasatu dut, eta seguru egingo dudala besteren bat. Ni marrazkilaria eta diseinatzailea naiz, eta agian nire kontra doa adimen artifizialaren kontu hau guztia, baina argi dago geratzeko etorri den erreminta bat dela, eta nik behintzat, probetxua ateratzeko saiakera egingo dut. Ikastaroren bat egiteko asmoa daukat aurrerantzean, eta agian nire etorkizuna diseinuaren mundutik bideratuko dut.

C69 da zure izen artistikoa. Nondik dator izen hori?

C nire abizenaren lehenengo letra da. 69 bi kontugatik aukeratu nuen: batetik, Cancer horoskoporekin sinboloa da, eta bestetik, 6nemen9 taldeko zenbakiak dira. Iruditu zitzaidan C69 izenak lotura zeukala nirekin, baina ez dakit oso komertziala den.

Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?

Betidanik gustatu izan zait musika. Ni txistularia izan naiz, eta behin erabili nuen silbotea abesti batean, baina gero desagertu egin zitzaidan eta baztertuta eduki dut. Orain agertu zait berriz, beste gauza batzuen bila nembilela, eta agian erabiliko dut berriz zeozertarako, baina disko honetan ez dut sartu. 6nemen9 taldea utzi genuenean musikaren harra barruan neukan oraindik, eta zerbait egiteko beharra sentitzen nuen. Hasita nengoen ordurako ordenagailuarekin musika sortzen; Ekekei antzerki taldearen obra baterako soinu banda egina neukan esaterako. Gaur egun entzuten dut eta ez zait batere gustatzen, baina orduan ahal nuen ondoen egin nuen. Hamaika disko sortu ditut ordutik, eta soinuak, batez ere, eboluzio handia igartzen da. Musika akumulatiboa egiten dut, hau da, elementuak gehitzen joaten naiz. Oinarri bat hartzen dut, eta elementuak gehitzen dizkiot.

Zeri abestu diozu disko honetan?

Gaur egungo gizarteari, oro har, eta neure buruari. Etorkizunari buruz hitz egiten da pila bat, baina etorkizuna hemen dago jada. Gauzak asko ari dira aldatzen, eta are gehiago aldatuko dira denbora gutxian. Harremanak, teknologia... lehen dena errazagoa zen. Neure buruari ere

*"Kantatzeak ondo egiten dit.
Abesti berriak sortzen ari naiz
dagoeneko, eta badaukat buruan
beste disko baterako ideia"*

abestu diot, animatzeko batez ere. Azkenaldian makal samar ibili naiz, bai osasunez eta bai umorez, etxetik apenas irten gabe... Kantatzeak ondo egiten dit. Abesti berriak sortzen ari naiz dagoeneko, eta badaukat buruan beste disko baterako ideia.

Non eskuratu ahal izango dugu diskoa?

Plataforma digital baten bidez egin dut guztia. Salmenten %20 beraientzat izango da, baina beraiek igoko dute nire diskoa musika plataforma erabilienetara. Formatu digitalean bakarrik kaleratuko dut; ez dut disko fisikorik egingo, gaur egun apenas erosten direlako diskoak. Spotify, iTunes, Amazon Music edota Youtuben egongo da salgai, baina doan deskargatzeko aukera ere emango dut. Disko fisikoa ez dut atera. Badakit musikari askok ateratzen dituztela, baina niri iruditzen zait hori zaharkituta geratu dela. Gaur egun jendeak telefonotik entzuten du musika. Doan deskargatzeko aukera emanda badakit ez dudala dirurik aterako, baina ez da hori nire helburua ere. Ni musikari profesionala izango banintz saiatuko nintzateke kontzertuetatik ateratzen dirua, eta ez diskoen salmentatik. Mundu zaila da hau dena den, eta norberak ikusiko du berari zer komeni zaion. Nire disko guztiak digitalak dira, eta online daude.

Ba al daukazu kontzertuak emateko asmorik?

Momentuz ez daukat ezer prestatuta, baina izan daiteke. Prestatuko nuke zerbait pantailaren batean proiektatzeko-edo, baina bakarrik irteeta oholtzara ez zait erraza iruditzen. 6nemen9 taldean ere abeslaria nintzen, baina talde baten babesean beti da errazagoa. Orain gainera aldakako minez nabil, eta dantza askorik ere ezin dut egin. Baina ez dut kontzertuak ematearen aukera hori guztiz baztertzen.



GORBEA

1955etik _____ gorbea.eus

**Kondeneko Iñakik eta Faustina Metalak
1955ean ireki zuten, eta orain,
Beñat eta Garazi bilobek berriro
irekiko dute, Luiz bazkidearekin.**



GORBEA 3 proposamen berrirekin:

Etixerako modukoak 
 poke  burger  burrito

Hemen bertan jaso edo
etxera eramango dizkizugu:
hanburgesak,
burrito mexikarrak,
pokea, sushia eta
janari asiarra.



Faustinan txokua 
jatebxe erreserbatua

Gutxienez hamar
laguneko taldeentzat
erreserbatutako jantokia da.
Gertuko osagaiekin egindako
hiru menu dauzkagu aukeran,
eta baita menu bereziak ere,
aurrez zehaztuz gero.



Iñakin Bermuta 
taberna

Pintxo eta errazio goxoak
edari onenekin, lagunekin
giro paregabea
partekatzeko.




Eskaerak eta erreserbak egiteko

gorbea.eus

 info@gorbea.eus


 Santa Ana, 10

 843 699 306

 @gorbea.eus

2023 urteari errepassoa





● **URTARRILA:** Haritz Dantza taldeak 50. urteurreneko egitaraua aurkeztu zuen. 1973ko abuztuaren 24an irten ziren plazara estreinakoz Haritz dantzari taldekoak, Elorra eta Ongarri taldeetan zein Elgoibarko Izarra dantza eskoletan ibilitako hainbat dantzari eta txistulari. San Bartolome Eguna zen, eta sokadantza egin zuten. Urteurrena gogoan, dozenaka ekintza egin dituzte aurten, eta besteak beste, haiek hasi dituzte aurten San Bartolome jaiak ere. Urte osoko egitarauan, baina, ekainaren 17koa berezia izan zen. Egun horretan Haritz Euskal Dantzari taldeko egungo dantzariak eta dantzari ohiak bildu ziren 50. urteurrena ospatzeko. Aita Agirren elkartu ziren guztiak eta taldearen historia errepasatu zuten lehenik. Kalejira egin zuten ondoren, eta azkenik, denek elkarrekin bazkaldu zuten Maalan.



ELGOIBARKO GABON ZAHARRETAKO FERIA 2023

Abenduak 30. zapatua



ELGORRAK
URTIA
1848





● **URTARRILA:** Selemon Barega etiopiarra eta Rahel Daniel eritrearra gailendu ziren Mugertza krosean. Ia 900 lasterkarik parte hartu zuten guztira, hamabi lasterketatan banatuta, eta jendetza handia batu zen Mintxetan.



● **URTARRILA:** Karakate Bizirik Plataformak ekintza ikusgarria egin zuen Mintxetan, Karakaten jarri asmo duten aerosorgailuen benetako tamaina herritarrei erakusteko. 180 metroko altuerako eta 70 metroko hegalak dituen aerosorgailua irudikatu zuten Mintxeta baserriko zelaian jarritako pankarta baten bidez. Era berean, Green Capital enpresak Karakaterako proiektatutako zentral eolikoaren kontra sinadurak biltzen ere jardun dira aurten Karakate Bizirik plataformakoak. 2.026 sinadura bildu eta aurkeztu dituzte udaletxean.



● **URTARRILA:** Astigarraga trail taldea aurkeztu zuten Elgoibarren. 32 kidek osatzen zuten taldea, aurkeztu zuten egunean. Taldea eta euren buruak ezagutzera emateko gogoz agertu ziren aurkezpenean.

● **08:30 - 14:30** Erakusketa eta salmenta: baserriko fruta, barazkiak, animaliak eta tresneria. Kalegoen plazan, elizpean, Aita Agirren, Giza Eskubideen parkean, eta Pedro Migel Urruzunon.

● **09:00 - 20:00** Parrokiako jaiotza.

● **10:00etatik aurrera** Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

● **10:00 - 14:30** Elgoibarko artisauen azoka, Maalan.

● **11:30** Elgoibar Ikastolak txosna zabalduko du, Kalebarren plazan.

● **12:00** Urteko Gazta Onenaren txapelketa. Udaleko areto nagusian. Kalamua elkarteak antolatuta.

● **12:30** 'Plazara dantzara' erromeria. Lekuederren.

● **13:00** Bertso saioa: Uxue Alberdi, Millan Telleria eta German Meabebasterretxea.

● **13:30** Sari banaketa. Udaletxean.

● **19:00** Kittu taldearekin, kalejira. Kalegoen plazatik.



● **URTARRILA:** Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bizirik eta indartsu dagoela azaldu zuen, bost urte bete zituela ospatzeko Euskal Herriko hainbat plazatan antolatutako elkarretaratzeetan, baita Elgoibarren ere. 2018ko urtarrilaren 15ean sortu zuten mugimendua, Fatima Bañesek, garai hartan Espainiako Gobernuako Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroa zenak, pentsiodunei eskutitz bidez jakinarazi zienean pentsioetan %0,25eko igoera izango zutela. Igoerak ez zuen KPIren igoera ere berdintzen eta burlatatzat jo zuten pentsiodunek.



● **URTARRILA:** Elgoibarko Espeleologia Taldea omendu zuen Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkartek, San Antonetako zigilu erakusketaren itxiera ekitaldian. 50 urte bete dituzte aurten espeleologoek Elgoibarko eta Mendaroko lurpea aztertzen, baina aztertzeaz gain, aurkikuntza horien dibulgazioan ere jardun dira eta makina bat artikulu eta liburu idatzi dituzte, lurrazpikoa azaleratzeko.

LAGUNAK
colcheneria textil lagunak

Primeran pasa itzazue egun hauek eta datorren 2024an zoriona, osasuna eta alaitasuna izan daitezela nagusi.

GABON ZORIONTSUAK!



● **URTARRILA:** *Irabaziak eta galerak* estudioko lana kaleratu zuen Muzak taldeak (Gaztain Estudioak, 2023). Lau kantaz osatutako lana zen, Zestoako Gaztain Estudioetan grabatutakoa.



● **OTSAILA:** Aitor Zabalak *El Diario Vasco* egunkarian Elgoibarko berriemaile izateari laga zion, 33 urteren ondoren. 1989ko ekainean idatzi zuen bere lehenengo kronika, eta amaieran, esker oneko hitzak izan zituen irakurleentzat eta informazio-iturri izan zituenez. Jabi Leonek ordezkatu zuen postuan. *Noticias de Gipuzkoa* egunkarirako ari da orain Aitor Zabala.



● **OTSAILA:** Karakate landa-parke gisa kalifikatzeko argi berdea ematen duen Karakateko Parkea Babesteko eta Antolatze Plan Berezia onartu zuen Elgoibarko udalbatzaren osoko bilkurak. Karakate landa-parke gisa kalifikatzeko bidea zabaltzen zuen plan horrek, hango arkeologia eta ondarea babesteko.

Idama Ilkapaindegia
 Idama Ilkapaindegia
 615701812 / 943744026

JAI ZORIONTSUAK
 opa d2veg!

ASESORIA GOAR

**KONTABILITATEA
 AHOLKULARITZA FISKALA
 ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
 asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129



● **OTSAILA:** Hemen bertako 700 bat zuhaitz landatu zituzten Baso Biziak taldeko kideek Muskirutzu inguruan, bi lurjabek Lurguia Fundazioari eta Baso Biziak taldeari lagatako bosna hektareako bi sailetan. Pagoak, haritzak, lertsunak eta sagarminak landatu zituzten. Antzeko ekimen gehiago ere egin dituzte urtean zehar.



● **OTSAILA:** Euskal Telbistako *Herri txiki, infernu handi* saioko aurkezle izateari laga zion Zuhaitz Gurrutxagak (Elgoibar, 1980). Los Angelesen antzestu zuen agurra zortzi urtean sozio izan zuen Mikel Pagadirekin, eta Miren Nogalesek (Zestoa, 1991) hartu zuen bere lekua.

● **OTSAILA:** Nuala elkarteari buruzko abestia eta bideoklipa kaleratu zituen Bizipoza elkartek. Oihana Arana bertsolariak sortu zuen letra, Xabier Zabalak konposatu zuen abestiaren musika eta Azkoitiko Bulego musika taldeko Tomas Lizarazu abeslariak jarri zion ahotsa abestiari.

2023 ARREITURRE INSTITUTUA *Eguberri on!*



"GAU OFF"

Eguberrien aurretik gau onak ere badira, gabon batzuen ostetik ondorengoei begira, gabonetan gauek baina badute beren dizdira, onak lirateke behintzat mugikor gabe balira; familiakideekin afaritik afarira, beti konektatuta (e)ta beti lagunei begira, mahai-inguruko uneak galtzeko zorian dira, gau onak edonoiz "gau off" bilakatuko baitira!

Doinua: Irun badaukazu zerbait
Egilea: Eneko Etxaniz Irureta



● **OTSAILA:** Jabier Arrizabalaga *Ziarda* omendu zuen Elgoibarko Izarraren santa eskeko taldeak, 1994tik hutsik egin gabe jardun izan zelako kopla kantuan, German Meabebasterretxearekin. Idotorbeko elkartean egin zioten omenalditxoa eta bertsotan eskertu zien Ziardak.



● **MARTXOA:** Jose Luis Ibarzabal saritu zuen COFAEk, arte eszenikoen koordinakundeak. Aho batez hartu zuen erabakia epaimahaiak. Ibarzabalek 26 urtez jardun zuen Eusko Jauriaritzako Kultura Saileko teknikari lanean (1996-2022), zehazki, antzerkiaren arloan, eta sail horretan egindako lana aitortu zioten sariarekin.



● **MARTXOA:** *Gu herriko steam emakumeak* kale erakusketa aurkeztu zuen Elgoibarko Udalak, zientzia alorreko emakumeak gertukoak direla erakusteko eta ikasle emakumezkoak zientzietara erakartzeko asmoz. *Barren* astekariak elkarriketatu zituen protagonistak eta Meka Lanbide Eskolak prestatu zituen panelen euskarriak. Paneletan, zortzi emakumeren esperientziak bildu zituzten. Era berean, herriko erakusleihoak ere apaindu zituzten. Egur Arte Tailerrekoek lagundu zuten horretan.



● **MARTXOA:** Hodei Ezpeletak eta Jokin Urretabizkaiak irabazi zuten Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa. Urrestillako Txikuri frontoian jokatu zuten eta lau bikote aritu ziren lehian, multzoko sailkapeneko buru izateagatik sailkatutako hiru, eta bigarren postuan sailkatutako arteko finalerdia irabazita sailkatutakoak, Ezpeleta eta Urretabizkaia bera.



● **MARTXOA:** Urteko lasterketa onenaren Corredor Saria eskuratu zuen Mugertza Nazioarteko Krosak. Espainiako Olinpiar Batzordearen egoitzan, Madrilan, banatu zituzten sariak eta krosetako zuzendari Zigor Diezek eta probaren ondarea berreskuratu eta mantentzeaz arduratzen den Felix Astigarragak jaso zuten saria, krosaren izenean.



● **MARTXOA:** 2024an Gipuzkoako gorengo mailan lehiatzeko txartela lortu zuten Zubi-Ondo xake taldeko Danobat Elgoibar taldekoek, lehen mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazita. Felix Mansok, Juan Manuel Navarrok, Mikel Leonek, Markel Kerexetak eta Ivan Fernandezek osatzen dute taldea.



● **APIRILA:** Espainiako Erreginaren Kopa eskuratu zuen June Loidik Bera Bera taldearekin. Super Amara Bera Berak eta KH7 BM Granollers taldeek jokatu zuten finala, Malagako Martin Carpena kiroldegian, eta euskaldunek 31-25eko emaitzarekin irabazi zieten kataluniarrei. Zazpigarren aldiz eskuratu zuten titulua.



● **APIRILA:** 24/7 Plataforma sortu zutenetik bi urte igaro zirela-eta, hainbat mobilizazio antolatu zituzten Elgoibarren. Horieta bat izan zen anbulatorioan etengabeko arreta ezar dezatela eskatzeko apirilean egin zuten elkarretaratze jendetsua.

Osasun gida

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA EUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Eibar

677 551 850

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com

RPS 177/19

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku eder
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Alta Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar


943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



● **APIRILA:** Jupiterrera bidean jarri zuten *Juice* misioan parte hartu zuten Goimekek, DanobatGroup taldeko enpresak. Goimek, DanobatGroupeko doitasun handiko mekanizazio enpresa, Sener Aeroespacialekin lankidetzan aritu zen *Juice* misioan. Apirilaren 14an abiarazi zuten Europako Espazio Agentziak *Juice*. Hamar tresna zientifiko, esperimentu bat eta erradiazio monitore bat eraman zituen barruan *Juice* espaziontziak eta zortzi urteko bidaiak egin ondoren hasiko da Saturnoko datuak Lurrera bidaltzen. Saturnoren barnealdea, atmosfera, inguru elektromagnetikoa eta ehun bat ilargi dituen eraztunen sistema aztertuko ditu.



● **MAIATZA:** Elgoibarko kiroldegiko langileek kalera atera zuten beraien protesta. Apirilaren 22an hasi zuten BPXport enpresako langileek greba mugagabea, beraien lan-baldintzak hobetzeko eskatzeko. Sinadura bilketa ere egin zuten, eta milatik gora lagunek eman zieten babesa. Uztailera arte eutsi zioten langile batzuek grebari.



● **MAIATZA:** Jokin Muñozek irabazi zuten Martin Fiz maratoia. Gasteizen jokatu zuten proba eta korrikalari mendarorarrak 2:24:50 denboran osatu zuten. Muñozen estreinako garaipena izan zen maratoi batean, eta gainera, bere marka pertsonala ondu zuten.

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

☎ **FLOREN / IBAI: 647 463 436** Elgoibar, Gipuzkoa 20870

✉ ibamariturgintza@gmail.com

MEKANOSA

Errosario, 27-Elgoibar

943 740 284

- ☑ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ☑ MULTIKOPISTAK
- ☑ FOTOKOPIAGAILUAK
- ☑ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ☑ MARRAZKETA MATERIALA
- ☑ INFORMATIKA
- ☑ FAXA

Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i
943 748 105
info@softlan.biz - <https://eu.softlan.eus/>

Gestio programetan
gaude espezializatuak.
Ticket Bai-rako, prestatuak.

Gabon zoriontsuak!



● **MAIATZA:** C.D. Elgoibarko emakumezkoen senior taldea erregional mailatik ohorezko mailara igo zen, liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan. Denboraldi borobila egin zuen taldeak iaz. Herritarrekin ospatu zuten igoera.



● **MAIATZA:** Iker Izetak eskubaloia laga zuen, hamazortzi denboraldiren ostean. Alcorta Forging Group taldeak etxean jokatu zuen azken partidaren ostean agurra jokalaritari, eta une hunkigarriak bizi izan ziren Olaizaga kirolegian. Mauxitxa txaranga ere batu zen ospakizunerara, Izetak tronpeta jotzen duelako txarangan. Hunkituta agurtu zen taldeaz eta publikoaz.



www.inmobiliariagabilondo.es

Edurne Gabilondo Loyola

- Zuzenbidean lizentziatua
- Higiezin jabetzako agentea
- Higiezin sektoreko peritu ofiziala

San Frantzisko 51, behea - Elgoibar

943 744 467

Gabon zoriontsuak!





● **MAIATZA:** EAJk irabazi zituen Udal Hauteskundeak Elgoibarren, eta Maialen Gurrutxaga izendatu zuten alkate. Zortzi zinegotzi eskuratu zituen alderdi jeltzaleak, eta zazpi zinegotzirekin EH Bildu izan zen bigarren indarra. PSE-EEK zinegotzi bat lortu zuen, eta Podemos Udaletik kanpo geratu zen. Mendaron, bestalde, EH Bilduk gehiengo osoa lortu zuen, eta Enez Ezenarro izendatu zuten alkate. EAJ izan zen bigarren, lau zinegotzirekin, eta PSE-EEK zeukan zinegotzi bakarra galdu zuen.



● **MAIATZA:** Eneko Ortega Lagun Taldeko txirrindulari elgoibartarrak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen junior mailan. Amurrion jokatu zuten proba, eta 22 kilometroko zirkuito bati bost proba eman behar izan zioten txirrindulariek. 2:55:16ko denborarekin, elgoibartarra izan zen azkarrena.



● **EKAINA:** Anjel Bazterretxea (Mutriku 1936 - Mendaro 2019) Mendaroko apaiza izan zenari buruzko ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten Mendaron. 54 urtez izan zen abade Bazterretxea, eta herrigintzan egindako lana aitortu zion Mendaroko herriak. Elgoibarko Izarrak gidatu zuen lana, Mendaroko Udalaren babesarekin. Dokumentalaz gain, Bazterretxearen artxiboko argazkiekin erakusketa ere osatu zuten. Egitasmoak arrakasta handia izan zuen Mendaron.

Gabon zoriontsuak!

**Grabados
LASER 2D**

Diseinu zerbitzua, grabatua eta laser bidezko mozketak.
 Espresa zein partikularrentzako lanak.

Material askotarikoak: egurra, kristala, arbel harria, larrua...

www.grabadoslaser2d.com

Revet Eibarbus
grupo JonAnder
www.grupojonander.com

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com

943 201 733



● **EKAINA:** Jose Cruz Igartuak 50 urte bete zituen apaiz lanetan ekainaren 10ean. Jose Maria Setienekin ordenatu zen apaiz, eta Elgoibarren eta Bilbon apaiz izan ostean, Madrilen bizi da gaur egun. Elizako lanak hitzaldiekin zein bestelako meditazioekin partekatzen ditu, eta hilean behin Elgoibarrera etortzen da, Isiltasunaren Eskolako meditazio saioak gidatzera. Urrian ospatu zuten 50. urteurrena eta Elgoibarko Isiltasun Eskolaren seigarren urteurrena.



● **EKAINA:** Amaia Sastre izendatu zuten Elgoibarko Izarrako lehenakari. Euskara elkarteak urteko batzar nagusia egin zuen, eta beste hainbat gairen barruan, zuzendaritza batzordea berritu zuen. Iñaki Konderen lekukoa hartu zuen Sastrek.



● **EKAINA:** Itziar Ajuria Elgoibar Ikastolako lehen andereñoa izan zena hil zen, 99 urte zituela. Bere ikasketak gaztelaniaz egin bazituen ere, bera izan zen eskolak euskaraz eman zituen lehenengo irakaslea Elgoibarren. 24 urte egin zituen irakasle lanetan Ikastolan.



● **EKAINA:** In Leike kultur elkarteak bere jarduna berreskuratu zuen. 1998an sortu zuten taldea, baina azken urteetan anekdotikoa edo hutsa izan zen haren jarduna. Euskal dantza taldeari babesa emateko aitzakia baliatu zuten berriz ere ekinean hasteko. Mendaron euskara normalizatzeko lanean dihardu taldeak.



● **EKAINA:** Auzoko jaia ospatu zuten Elgoibarren jatorri askotariko bizilagunek, euskaratik mundura zubiak eraikitzeko. Musika, dantza eta gastronomia uztartu zituzten. Etorri berriak euskarara erakartzeko egitasmoa da *Auzoko*.



● **EKAINA:** Udal Musika Bandak Maalako parkea bete zuen, Queen gaua ekimenean. Queen musika talde handiaren abesti ezagunenak kantatu zituzten. Jon Gurrutxagak bete zuen Freddy Mercuryren papera eta Patxi Zabaleta eta Silvia Hernandez aritu ziren gitarran eta teklatuan.



● **EKAINA:** Urazandi eta Kalamua kalea lotu zituzten, eta ordutik auzoko zirkulazioaren norabidea zentzu bakarrekoa da. Udalak 213.196,89 euroko inbertsioa egin zuen obra honetan.

● **EKAINA:** Mikel Gurrutxagak (17:52) eta Ainhoa Lendinezek (21:27) irabazi zuten Kimetzek antolatutako Nahaste Borraste proba herrikoia. 42 lagunek hartu zuten parte.



Uzuri  optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359

www.uzurioptika.com

ZURE BIZITZAN
GAUZAK ARGI IKUSTEN
EZ BADITUZU,
ALDATU BETAURKEKOAK.

2024 urte zoriantsa bat guztiok!



● **EKAINA:** Joseba Etxeberria Eibar futbol taldeko entrenatzaile izendatu zuten. Azken bi urteetan Burgoseko Mirandes taldea entrenatu ostean iritsi zen Etxeberria Eibarrera.



● **EKAINA:** Urak azpian hartu zituen Elgoibar eta Mendaró. Hainbat egunez alerta horian egon ginen ekaitz eta eurite arriskuagatik, eta aurreikuspen guztiak bete ziren. Ekainaren 18an, domekan, zerua belztu egin zen eta bat-batean hasi zen txingorra. Motza izan zen ekaitza, baina euriteak kalteak eragin zituen, Maala inguruan bereziki. Handik bi egunera, beste euri-erauntsi bat izan zen, eta orduan ere kalteak izan ziren Elgoibarren eta Mendarón.



● **EKAINA:** Mendaroko Txirristaka tabernak 40 urte bete zituen, eta jai-giroan ospatu zuten Bizi Poza txarangarekin. 1983ko maiatzean zabaldu zuten Txirristaka Angel Loiarrek eta Juan Jose Loiolak, Trinitateetako jaietan. Barberonekoan jaiotako Eusebio Mugertza Txirristakaren (1874-1955) ezizena hartu zuten tabernari izena jartzeko. Bertso jarriak saltzen aritzen zen Txirristaka.

BOSCH SMS25AIO5E
ONTZI-GARBIGAILUA

519 €



A
T
G

E

- 12 zerbitzu
- ActiveWater teknologia
- ECOSILENCE motorra
- 24 ordurainoko programazio diferitua
- VarioSpedd sistema
- Inox Antihuellas

BOSCH WTR85V91ES
ARROPA LEHORGAILUA

599 €



A
T
G

A

- 8kg-Ko karga
- Bero-ponpa
- VarioSoft danborra
- Zimurren aurkako babesa
- Lehortzeko sistema delikatu
- AutoDRY

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Gabon zoriotsuak opa dizkizuegu!



● **EKAINA:** Sara Arriolak hartu zuen Pitxintxuko Izaskun eta Mari Jose Estibaritzen lekukoa. 45 urteren ondoren erretiroa hartu zuten bi ahizpek eta hilabeteetan jardun zuten errelebo bila. Sara Arriolari esker, Pitxintxuk zabalik jarraitzen du.



● **EKAINA:** Txus Alzaga izendatu zuten C.D. Elgoibarko presidente, eta zuzendaritza talde berria aurkeztu zuten batzar orokorrean. Gotzon Gurrutxaga, Leyre Morla, Oscar Urrio, Ane Etxeberria eta Olatz Oñederrak osatu zuten taldea.

● **UZTAILA:** Iria Andradek irabazi zuen Kultur Kafea kudeatzeko lehiaketa publikoa. Bi urteko kontratua sinatu du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Irailean zabaldu zuen taberna.



● **UZTAILA:** German Telleria izendatu zuten Sanlo eskubaloi taldeko presidente, eta zuzendaritza talde berria aurkeztu zuten: Oihana Telleria, Alaitz Lizarralde, Ibai Gurrutxaga, Ikuska Barua, Gaizka Ibirriaga, Marijo Mugertza, Eva Barrutia, Olatz Ibarra, Myriam Barrutia, Paul Zubiaurre eta Ane Iriondo.

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

ileapoi-degi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzenko.

BM
bronymec



Termoplastiko eta konpositeetan adituak




PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162



ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK



943 741 480
Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576



Olaso, 17 - Elgoibar



● **UZTAILA:** Bi erraldoi berri aurkeztu zituen Erbuze erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten konpartsak. Haritz Dantza Taldearen 50. urteurrenaren harira, erraldoi berriak bi dantzari izatea adostu zuten Udalak eta Erbuzek, eta hasiera batean dantzari anonimoak izatea pentsatu bazuten ere, azkenean herriko bi dantzari historikoren trazara egin zituzten erraldoiak: Jon Lizarralde eta Arantza Aginako. Mikel Ibartzabal Bergarako artisauak egin zituen erraldoiak.



● **UZTAILA:** Ion Zubiaurre Ros izendatu zuten Debabarreneko Mankomunitateko presidente. Elgoibarko Udaleko EAJko zinegotzia da, eta Hirigintza Saila dauka bere arduran. Lau urterako kargua hartu du.



● **UZTAILA:** Paula Calvo igerilariak urrezko hiru domina irabazi zituen infantil mailako Espainiako txapelketan. 14 urte ditu igerilari elgoibartarrak, eta azken urteetan dominak pilotzen ari da. Datorren urterako Europako txapelketan parte hartzea dauka helburu.



● **ABUZTUA:** Agustin Mugertza Arno ganadutegiko ugazabak agur esan zion Elgoibarko sokamuturrari. 1984an hasi zen Arno ganadutegia Elgoibarko sokamuturrera zezenak ekartzen, eta 39 urtean jardun du zeregin horretan Mugertzak.





● **ABUZTUA:** Antonio Azpiazu omendu zuten Lagunak Pilota Eskolako kideek. Urteetan Elgoibarren pilota sustatzeko egindako lana aitortu zioten Azpiazuri San Bartolome Eguneko pilota jaialdian. Hunkituta jaso zuen pilotazaleek egin zioten omenaldia. Gaixotasun larri baten ondorioz, irailean hil zen Azpiazu, 75 urterekin.

● **ABUZTUA:** Jagoba Arrasate eta Sara Arriola omendu zituen C.D. Elgoibarrek San Bartolome jaietan. Arrasatek bota zuen jaiari hasiera emango zien futbol txupinazoa, eta Arriolak, berriz, jaien amaierakoa.



● **IRAILA:** Zuzendaritza Berria aurkeztu zuen Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak. 11 emakumekok eta bi gizonezko osatu dute taldea, eta Lourdes Beneitez izendatu dute lehendakari.



● **IRAILA:** Jabier Larrañaga Elgoibar Ikastolako zuzendariak erretiroa hartu zuen irailaren 6an, bere urtebetetze egunean. Langile ohiek eta gaur egungo lantaldeko kideek egin zioten agurra.

● **IRAILA:** Maite Maiorak bosgarren egin zuen Chamonixen (Frantzia), Mont Blancoko Ultratrail txapelketan. 172 kilometroko luzerako proba izan zen, 9.963 metroko desnibel positiboarekin. 2.300 lagunek hartu zuten parte, tartean Maiorak berak. Emakumezkoetan bosgarren egin zuen, eta bere mailan lehenengoa izan zen.





● **IRAILA:** Mendarora sartzeko zubi berria eraikitzeko obrak hasi zituzten. 2.125.258 euroko aurrekontua dauka obrak, eta ondo bidean, zortzi bat hilabeteko epean amaitzea aurreikusi dute. Horrez gain, Mendarorako bigarren sarbidea egiteko proiektua urte amaierarako aurkeztuko zutela adierazi zuten.

● **IRAILA:** King-Kong zubia berritzeko obraren lehen fasea hasi zuten. Lehen fase honetan 634 errepidearen gainean pasabide berria eta igogailua egingo dituzte. 991.840,96 euroko kostua dauka obrak, eta ondo bidean, hamar hilabeteko epean amaitzea aurreikusi dute.



● **IRAILA:** 60ko eta 70eko hamarkadetan Debabarrenean sortu ziren rock taldeak omendu zituzten, Leokk taldearen ekimenez. Alfontso Guillo elgoibartarra da Leokk taldeko kideetako bat, eta *Bizirik hala ere* diskoa aurkezteaz bat, garai hartako taldeei aitortza egin zieten.



1.800 €

BANATUKO DITUGU
10 EROSKETA TXEKETAN

GABON ZORIONTSUAK !

*Elgoibarren
bizi erosi
horriak irabazi*

TXANKAKUA
ELGOIBARRKO MERKATARIK

Urtarrilaren 3an
Elgoibarko
kaleetan zehar
TXU-TXU TRENA
izango da!









● **IRAILA:** Leire Garatek arrauna laga zuen, Kontxako Bandera jokatu ostean. Ondarrun hasi zen Garate arraunean, eta azken 11 denboraldiak Orioko arraun taldean eman ditu. Hiru aldiz irabazi ditu Kontxako Bandera eta Euskotren liga. Dena emanda eta ametsak beteta hartu zuen erretiroa.



● **IRAILA:** Demetrio Vallejo zena omendu zuen Elgoibar1936 taldeak. 1936ko irailaren 21ean tropa frankistak sartu ziren Elgoibarren eta egun horren harira memoria historikoari loturiko ekitaldiak antolatu izan ditu taldeak azken urteotan. Errosario kalean egin zuten aurtengoa, Demetrio Vallejo zenaren etxe aurrean. Vallejo abertzalea eta sozialista zen, eta tropak bere balkoi aurretik pasatzean 'Gora Euskadi askatuta!' oihu egin zien.



● **IRAILA:** Elgoibartik Donostiarako Autobus zerbitzuan dauden gabeziak azalera zizuten herritarrek. Zarautz eta Donostia ikastera zein lanera joaten diren herritarrek kexu ziren, goizero beraien helmugara iritsiko ote ziren jakiten ez zutelako. Errefortzuak iragarri zituzten Foru Aldundiak eta Udalak, baina arazoa ez zen konpondu.

● **URRIA:** Lizagasar Erronka antolatu zuten estreinakoz Morkaikok eta Casa Astigarraga Trail Taldeak. Lizagasar sagartokiko sagastian egin zuten lasterketa. Zortzi kilometroko ibilbidea prestatu zuten, 60 sailetan banatuta: 30 gorantz eta 30 beherantz. Iñaki Goenaga soraluzearra izan zen irabazlea.



● **URRIA:** Osakidetzako larrialdietako zuzendari izendatu zuten Ane Beitia, 2015etik aurtengo maiatzera arte Elgoibarko alkate izandakoa EAJ alderditik. Medikuntza eta kirurgian lizentziatua da eta 2015era arte Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailean aritu zen lanean.





● **URRIA:** Literatura izan zuten gogoetagai aurtengo *Euskara ala Ezkara* jardunaldian. 65 bat euskaltzale batu ziren IMHn literatur munduko eragileen gogoetak entzutera. Ekitaldi hori aprobetxatu zuten baita ere Pitxintxu dendaren eskualdatzea irudikatuzko.

● **URRIA:** *Belarriko kilkerra* eta *Surflaria* liburuak argitaratu zituen Uxue Alberdik. Susana Martin komikilariarekin batera kaleratu zuen *Surflaria*. *Belarriko kilkerra* narratiba liburua da eta Elgoibarren ere aurkeztu zuten, Pitxintxun, gertukoaren artean. Ahoz kontatu eta belarriaz jasotako istorioak bildu zituen Alberdik liburu horretarako. Miren Amurizak eta Angel Ugarteburuk parte hartu zuten aurkezpenean.



lizardi

INGENIERÍA
DISEÑO
CONTROL

Zorionak eta Urte berri on!



● **URRIA:** *Harri, herri, har* diskoa kaleratu zuen Iban Urizar Amorantek, *Forbidden Colours* disketxearekin. Hiru zutabetan eraiki zuen diskoa, herri musikaren orubea oinarri duela.



● **URRIA:** Imanol Alvarez (13:37) eta Maite Maiora (18:44) izan ziren onenak Idotorbeko Igoeran. 36 txirrindularik hartu zuten parte.



● **URRIA:** Cafes Baque buruz buruko txapelketa irabazi zuen Iker Izagirre pilotari elgoibartarrak. Bizkai, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Errioxako kadete eta jubenil mailetako pilotaririk onenak biltzen ditu txapelketa honek. Lazkaoko Lapke taldean jokaten du pilotari elgoibartarrak.



● **URRIA:** *Arrakasta* liburua argitaratu zuen Jasone Osorok, bere lehen saiakera liburua. *Arrakasta* lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketekin eta bere esperientzia propioekin osatu zuen liburua.



● **URRIA:** *Kanela, kalabaza eta gatyak* liburua kaleratu zuen Naiara Martinek, gaba beltzaren harira. Umeekin heriotzaren gaia lantzeko liburua da. Ane San Martin elgoibartarrarenak dira ilustrazioak.



● **URRIA:** Abuztuan hil zen ezker abertzaleko militante Jon Garate *Katalo* omendu zuten senide eta lagunek. Giza Eskubideen parkean egin zioten omenaldi xumea eta intimoa.



● **URRIA:** Euskararen kontrako oldarraldiaren aurrean Kalegoen Plaza betetzera dei egin zuen Elgoibar 365 taldeak. Bilbon egin zuten manifestazio handirako motorrak berotzeko ekitaldia izan zen. Elgoibarko euskaltzaleek euskaraz bat egin eta izateko deia egin zuten.

● **AZAROA:** Ludoteka berria inauguratu zuten Bolatokiko parkean. Azaroaren 20an zabaldu zuten, Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunean. Martitzenetik zapatara egoten da zabalik, eta zerbitzua doakoa da.



Urte
berri
on!

ehbildu



● **AZAROA:** Zuhaitz Gurrutxagak *Subcampeón* liburu autobiografikoa kaleratu zuen. Ander Izagirre idazle eta kazetariarekin batera idatzitako liburua da, eta lehen mailako futbolari zela bizi izandakoak jaso dituzte liburuan. Realeko jokalaria izatearen ametsa bete izana, amesgaizto bihurtu zitzaionekoa kontatzen du.



● **AZAROA:** Pedro Zapatak 50 urte bete zituen, Udal Musika Bandan. 16 urte zituela iritsi zen Andaluziatik Elgoibarrera, eta iristeaz bat hasi zen txarangan eta bandan klarinetea jotzen. Santa Zezilia Eguneako kontzertu berezian egin zioten omenaldia. Kontzertu horretan Serafin Zubiri musikari nafarrak ere hartu zuen parte.



● **AZAROA:** Errigoraren 10. urteurrena ospatu zuten. Errigora egitasmoak 10 urte bete ditu aurten, eta Elgoibarko Errigora komunitateak pintxo-pote berezi bat egin zuen urteurren hori ospatzeko.



● **AZAROA:** Aitziber Olaizolak Euskal Herriko bolo txapelketa irabazi zuen emakumezkoetan. Sailkapen nagusiko lehenengo postuan iritsi zen bolari elgoibartarra finalera, eta azken jaurtialdian ere ez zuen hutsik egin. 15 txirlorekin berak jantzi zuen txapela.



● **AZAROA:** Euskaltzain oso karguari zin egin zion Andres Alberdik, Getarian. Bere mintzaldian araukin izan duen bizipen pertsonalez eta harremanez jardun zuen.



● **AZAROA:** Aritz Unamuno bergararrak (27:51) eta Ainhoa Lendinez (35:48) elgoibartarrak irabazi zuten Karakateko igoera. Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen proba ikustera.



● **AZAROA:** Euskal Herriko Mugimendu Feministak grebara deitu zituen herritarrak azaroaren 30erako, zaintza sistema publiko komunitario bat aldarrikatzeko. Mobilizazioak egin zituzten egun horretan hiriburu eta herrietan, eta Elgoibarren ere izan ziren ekitaldiak.

● **AZAROA:** Indarkeria matxistaren kontrako aldarriak hartu zituen kaleak Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunean, eta beste hainbat ekintzaren artean, *Bizirik eta aske* kantua jendaurrean abestu zuten Elgoibarko musika eskolako koruko ikasleek.



● **ABENDUA:** *Euskararen Historia Soziala Elgoibarren* ekitaldiaren barruan, 1950etik 1990era euskalgintzan jardun zuten eragileei omenaldia egin zieten. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu zuten ekitaldia, Badihardugu elkartearekin batera.



● **ABENDUA:** Apustu bitxia jokatu zuten Mendaron. Herriko Enparantzan hasi eta Gaintxipia tontorrerainoko bidea erreleboka nork azkarrago egin zuten erronka. Hiru laguneko 18 taldek hartu zuten parte eta Jon Larrañaga, Kepa Mendikute eta Hodei Ezpeletak osatutako hirukoa izan zen proba osatzen lehenengoa, 31:05 denborarekin. Apustuak egun osoko jai-giroa jarri zuen Mendaron.

2024rako
irribarre asko
opa dizkizugu!



aldaz

hartz klinikak · clínicas dentales

943 366 377

Lasarte-Elgoibar-Tolosa

Ia bi mila opari banatuko ditu Elgoibarko Izarrak domekan, euskararen aldeko tonbolan

Elgoibarko Izarrak tonbola jarriko du domekan Kalegoen plazan, eta ia bi mila opari banatuko ditu herritarren artean. Elgoibarko eta Mendaroko norbanako, elkarte, enpresa eta eragileek emandako opariak dira guztiak, eta elkartetik eskerrak eman dizkiete guztiei. 11:00etan zabalduko dute tonbola, eta 14:00ak aldera arte egongo dira opariak banatzen. Euro batean salduko dituzte boletoak, eta bostetik batek oparia izango du. Hala ere, oparirik gabe gelditzen direnek ere izango dute oparia eskuratzeko azken aukera bat. Izan ere, saririk gabeko boletoen artean telebista bat zozkatuko dute. Saritu gabeko boletoak gorde egin behar dira. Zenbatuta daude guztiak, eta 14:00etan egingo dute zozketa, Kalegoen plazan bertan. Zerbaki sariduna momentuan agertu beharko da. 10 minutu izango ditu lehenengo



sarituak oparia jasotzeko, eta ez bada agertzen, beste zerbaki bat aterako dute. Horrela jarraituko dute, irabazlea agertu arte.

Tonbolaren aldamenean talo postua ere jarriko dute.

Hemeretzi taldek hartu dute parte jaiotza lehiaketan



Elgoibarko Kabalgata Taldeak erreleboa hartu du aurten, eta jaiotza lehiaketa izan da bere egitekoen artean lehenengoa. Domekan egin zuten, eta 19 taldek hartu zuten parte. Lehen saria Danel Perez, Juan Castro, Martin Mujika, Eñaut Ruiz, Julen Loiola eta Edur Guineak aurkeztutako jaiotzari eman diote. Bigarren saria, berriz, Scarlett Avendañok eta Paula Avendañok eskuratu dute eta hirugarren saria Maialen, Ander eta Julen De la Maza neba-arrebek jaso dute. Abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 29ra bitartean ikusgai jarriko dituzte jaiotza guztiak, Kultur Kafean.

'Dena asmatuta dago' laburmetraia aurkeztu du Jone Arriolak



Jone Arriola elgoibartarrak *Dena asmatuta dago* laburmetraia aurkeztu zuen joan zen astean Herriko Antzokian. Filmak antzinako bainugela arrosa bat du eszenatoki. Bertan, Lur eta Martin ageri dira, porro bat erretzen. Duela sei hilabete ezagutu zuten elkar, baina beraien arteko harremanak oraindik ez du izen zehatzik. Uraren eta lurrunaren artean, bikotea elkarriketa deseroso baina funtsezko batean murgiltzen da, dena asmatua dagoela dirudien mundu batean. Proiekzioaren ostean egile, eta protagonistekin solasaldia egin zuten.

Domekan etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi opariak banatzera

Domeka goizean etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarrera, Atxutxiamaikaren eskutik. 10:00etan San Lazarora eta Eguneke Zentrora joango dira kantuan, eta 11:00etan hasiko dute kalejira. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleek agurra egingo diete Maalan Olentzero eta Mari Domingiri, eta San Frantzisko kalean gora joango dira, Kalegoen plazara iritsi arte. Bide horretan bi geldialdi egingo dituzte, bata King-Kong inguruan eta bestea Kalebarren plazan. Kalegoen plazara iristean umeen gutunak jasoko dituzte, eliza atarian prestatu duten estalpean.

Mendaron Ameikutz musika eskolak antolatu du Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. 17:00etan abiatuko dira Moxuanetik, eta herriko kaleak zeharkatu ondoren,



18:30ean, udaletxeko balkoira igoko dira. Plazan, bertso eskolakoek eta dantzari talde batek agurra egingo diete.

Oraindik badaude sarrerak Eguberrietako bertso saiorako



Elgoibarko Izarrak antolatuta, Eguberrietako bertso saioa egingo dute abenduaren 28an, Herriko Antzokian. Gaur bertan itxi dute sarreren aurre-salmenta, baina antolatzaileek jakinarazi dute oraindik badaudela sarrerak. Beraz, nahi duenak egunean bertan Herriko Antzokiko txarteldegian erosteko aukera ere izango du, 13 euroan (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 11 euro). Aurtengo bertsolariak hauek dira: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Onintza Enbeita eta Nerea Ibartzabal. Gai-jartzaile lanetan Maite Berriozabal arituko da. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

Orri markagailuen lehiaketa antolatu du Gotzon Garate Udal Liburutegiak

Gotzon Garate Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu du eskola-umeentzat. Elgoibarren errolatuta dauden edo Elgoibarren ikasten dutenek parte hartu dezakete, bi mailatan banatuta: LH5era artekoak eta LH6tik aurrerakoak. Aurtengo gaia *Berdinak ala desberdinak gara?* izango da. Irudia, gaia eta lema izan beharko du orri markagailuak. 210 x 50 milimetroko neurrian egin beharko da,

eta paperean nahiz PDF formatuan aurkeztu ahal izango dira lan guztiak 2024ko urtarrilaren 31 baino lehen, liburutegian bertan edo liburutegia@elgoibar.eus helbidera idatzita. Epaimahaia Egur arte tailerreko Paula Herasek, Ane arte tailerreko Ane San Martinek eta Gemma Monreal Elgoibarko margolariak osatuko dute. Maila bakoitzeko irabazleek tableta elektronikoko bana jasoko dute sarritzat.

Urtarrilaren 5ean iritsiko dira ekialdeko errege magoak Elgoibarrera eta Mendarora

Ekialdeko errege magoak urtarrilaren 5ean iritsiko dira Elgoibarrera eta Mendarora. Elgoibarrera Santa Klara aldetik iritsiko dira 18:00etan, zaldiz. Kalegoen plazan egingo diete harrera herritarrek, eta Jesus haurtxoa gurtzera joango dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Ondoren herriko kaleak zeharkatuko dituzte, eta umeen gutunak jasoko dituzte udaletxe azpian. Antolakuntzan erreleboa egon da 35 urteren ondoren, eta antolatzaileek berrikuntzak iragarri dituzte, baina ez dituzte aurreratu.

Mendaron, bestalde, Arno guraso elkarteak antolatzen du erregeen desfilea. Lizarpetik behera etorriko dira erregeak 18:00ak



aldera eta Azpilgoetako elizan bukatuko dute ibilbidea.



Maite Lopez Las Herasen lan bat saritu dute Erreteria Hiria Ipuin Lehiaketan

Ereintza elkarteak antolatzen duen Erreteria Hiria Ipuin Lehiaketaren sariak banatu zituzten, zapatuan Erreteria-Oreteran, eta aurten 500 ipuinetik gora aurkeztu dituzte. Euskarazko kategorian, sari nagusia Maite Lopez Las Herasek irabazi du, *Urrats Galduen Lorratzean* lanagatik. 800 euroko saria irabazi du.

Mus txapelketa antolatu du Gabonetarako Elgoibarko EAJ-k

Elgoibarko Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) Mus Txapelketa antolatu du Eguberrietarako. Txapelketa antolatzen duten seigarren ekitaldia izango da aurtengoa eta abenduaren 23an jokatu da Batzokian, 16:00etatik aurrera. Parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena Batzokian, 20 euro ordainduta bikoteko. Hiru sari banatuko dituzte. Irabazleek txapela, bi lagunentzako afaria eta izen-ematean batutako diruaren erdia jasoko dute saritzat. Txapeldunordearentzat garaikurra, produktuz betetako otarra eta izena ematean jasotako diruaren %30a izango dira; eta, produktuz betetako otarra eta batutako diruaren %20a jasoko dute hirugarren sailkatuek.

Drimuns argidun ikuskizuna gaur, Elgoibarko kaleetan

Munduko kultura desberdinetako erritmoak ekarriko ditu Cia Majareta antzerki konpainiak gaur arratsaldean Elgoibarrera. Drimuns argidun eta koloredun musika ikuskizuna izango da, eta kaleetan zehar ibiliko dira, 18:00etatik aurrera. Beste planeta batetik iritsitako animaliak irudikatuko dituzte, eta argiaren eta musikaren bidez saiaturiko dira lurtarrek harremantzen. Eurria bada, udaletxeko arkupeetan egingo dute saioa.

Herriaren 40. urtemuga ospatzeko ekitaldi ofiziala eta kantaldia antolatu ditu Mendaroko Udalak

Mendaro udalerrri egin zela 40 urte beteko dira abenduaren 29an, eta egun hori oroitzeko ekitaldi ofiziala antolatu du Mendaroko Udalak egun horretarako. Udaletxeko udalbatza aretoan egingo dute, 18:00etan hasita. Alaitz Vives kazetariak eta eta garai hartan Mendaro Telebistako kameralari zen Leire Eizagirre mendaroarrek sortutako 1+1=1 dokumentala proiektatuko dute eta ekitaldi ofizial batek izan ohi dituen osagai guztiak izango ditu ekitaldiak. Bukaeran, mokadua ere banatuko dute. Ekitaldi ondorena Bizi-Poza txarangak girotuko du. Azpilgoetan hasiko dute kalejira 19:30ean, eta kalez kale ibiliko dira txarangakoak, iluntzea girotzen.



Biharamunerako, abenduaren 30erako, Landarbaso abesbatzakoak gonbidatu dituzte Mendarora, 40. urtemugaren baitan. Landarbasoren baitako Kontari taldekoek kontzertua emango dute

San Agustinen, 12:30ean hasita, eta ondoren, ipuin lehiaketako sariak eta urteurrenaren harira Udalaetik sortu duten lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Ruper Ordorika Mugalariak taldearekin arituko da Mendaron urtarrilaren 7an



Ruper Ordorikak kontzertua emango du urtarrilaren 7an, Mendaron, Mugalariak taldearekin batera. Mendaro herriaren 40. urtemugaren baitan antolatu dute kontzertua Mendaroko Udalak eta Gararock taldeak, elkarlanean. Kontzertua San Agustin kulturgunean izango da, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude Morroskillo dendan eta Leire jantzi-dendan, 12 euroan. Pertsonako, gehienez lau sarrera eskuratu ahal izango direla zehaztu dute antolatzaileek.

Elgoibarko Udalak euskarazko produktuen katalogoa banatu du

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak Euskarazko Produktuen katalogoaren edizio berria banatu du Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen artean. Katalogoak ehunka erreferentzia biltzen ditu 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat: musika, DVD filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailu eta jokoak, gurasoentzako produktuak... Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa

ematen du, eta zenbait ataletan adinaren araberako banaketa ere egiten da. Katalogoa online ere badago, katalogoa.eus helbidean. 8.000 produktu baino gehiago daude bertan, eta urtean zehar etengabe berritzen da. Webguneak, bestalde, buletinera harpidetzeko aukera ematen du, eta harpidedunek urtean hamar buletin jasoko dituzte, uneoroko berrikuntzekin.



Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!

*Neguaeren bihotzean, Gabonak!
Poza, familia, lagunak...
elkarri opa dizkiogun hitz onak,
irribarre eta zorionak.
Jatorri guztietako pertsonak,
bertako zein atzerriko hiztunak,
bildu eta egin gaitezen euskaldunak!*

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Aita Agirre, 3, 3. solairua - Elgoibar - 943 742 731
udaleuskaltea.elgoibar@debabe.eus



GOKI



erreformak

Gabon zoriontsuak!

Olaso pol, 15 - 68 pab
Tel. 943 74 42 23
ELGOIBAR

Irizar, 1 behea
Tel. 943 76 53 42
BERGARA

Errabal, 19 behea
Tel. 943 12 57 41
SORALUZE

www.gokierreformak.com

23 KIROLARI SARITU DITUZTE

✍ Ainhoa Andonegi / 📸 Asier Orbea

2023an nabarmendu diren kirolariei errekonozimendua egin diete Kirol Federatuaren Urteko sarietan, eta aurten 23 lagun nabarmendu dituzte. 18 sari klubek eurek eman zituzten, eta Kirol Patronatuak bost sari berezi eman zituen. Sari banaketaren aurretik eliteko kirola eta buru osasuna izan zituzten hizpide. Zuhaitz Gurrutxagak lehen mailako futbolari zela bizi izan zituen buruko arazoak kontatu zituen, Lorea Arakistain kazetariak gidatuta.



2023ko sarituak eta sari emaleak.



Eliteko kirola eta buru-osasuna izan zituzten hizpide, Zuhaitz Gurrutxagarekin. Lorea Arakistainek egin zion elkarrizketa.



Edu Arrona (Hiru Txirlo Bola Elkarteak). Iñigo Loiolak jaso zuen saria bere ordean.



Ander Izagirre eta Haritz Arrieta (Morkaiko Mendizale Elkarteak)



Anton Arrillaga (Sigmako probalekua elkarteak)



Iñaki Muguruza (Zarta arku tiraketa)



Igor Torres (Mintxeta Atletismo Taldea)



Elias Fernandez (C.D. Elgoibar)



Maria Begoña Bautista (Olaizaga karate taldea)



Borja Goikoetxea (Egokran judo taldea)



Ramon Zapata (40-15 tennis elkarte)



Gorka Heis (Urbizi urpeko jardueren elkarte)



Igor Iriondo (Urnabitza moto kluba)



Andde Elizburu (Rollerski. Patronatuaren saria)



Sara Etura (Futbola. Patronatuaren saria)



Angel Motrel (La Union ehiza elkarte)



Alberto Iturriaga (Lagun Taldea Txirrindulari Elkarte)



Paula Calvo (Elgoibarko Igeriketa taldea)



Gorka Lizarralde (Lagunak Pilota Eskola)



Mikel Lahoz (Elgoibar saskibalo taldea)



Vicente Santos (Zubi Ondo xake elkarte)



Juan Carlos Arroyo (Sanlo Eskubaloi Taldea)



Eli Gutierrez (Txirrindularitza: Patronatuaren saria)



Oihana Agirregomezkorta (Futbola. Patronatuaren saria)



Alex Bergua (Boluntarioa. Patronatuaren saria)

Etorkizuna eraikitzen
jarraitu dezagun elkarrekin



Zorionak eta
Urte Berri On!

 **Meka**
Lanbide Eskola



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
ABOKATUAK

J A U S O R O P L A Z A , 3 B E H E A
6 8 8 7 7 7 8 8 3

zurealde.elgoibar@gmail.com

G A B O N Z O R I O N T S U A K
2 0 2 4 !



Urrezko Faserako sailkapena lortu du Sara Eturak 15 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin

15 eta 17 urte azpiko euskal selekzioak Erkidego autonomikoen arteko Espainiako Futbol Txapelketa jokatzeko ari dira, eta Sara Etura elgoibartarrak 15 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin jokatu du txapelketaren lehen fasea, Palentzian (Espainian). Euskadik 5-3 irabazi zion Gaztela Leoni eta hutsean berdindu zuten kanariarren aurka. Emaitza horiei esker, martxoan jokatuko duten Urrezko Faserako sailkatzea lortu du euskal selekzioak. Madril, Andaluzia, Aragoi eta Kataluniako selekzioak izango dituzte aurkari. Realeko jokalaria den Sara Eturak "emozio handiz" jaso du euskal selekzioaren deia. Talde txuridinean hegaleko postuan jokatzeko badu ere, selekzioarekin erdiko aurrelari gisa aritu da, golik sartu ez badu ere.

C.D. Elgoibarko lau jokalarik ere jaso dute Euskadiko futbol selekzioaren deia, federazioak urtero abenduan antolatzen dituen entrenamendu saioetan parte hartzeko. Mutilen eta nesken 12 urtez azpiko Euskadiko futbol selekzioek lurraldeka egin dituzte azken deialdiak, Elorrion eta Laudion egin dituzten entrenamenduetan parte hartzeko. Nesken taldearekin hiru elgoibartar aritu dira: Laia Duarte Ibarra, Noa Zubiaurre Osoro eta Jare Iturriagaetxeberria Elorza. Mutilen selekzioarekin aritu da Teo Galdona Palomino.



Maratoian duen marka ondu du Igor Torresek Valentziako maratoian



Munduko maratoirik azkarrenetakoa da Valentziako maratoia, eta denborak hobetzeko aukera hori amu handia da antxixikari askorentzat. Aurtengo ekitaldiak 30.000 maratoilari inguru bildu zituen joan den abenduaren 3an. Korrikalariek bertan lortzen dituzten denborak aintzat hartuta munduko maratoirik azkarrenetakoa da Valentziakoa, eta are gehiago izan da aurten Sisay Lemma irabazleak historiako seigarren markarik onena egin baitzuen 42 kilometroak eta 195 metroak 2:01:48ko denboran eginda. Igor Torres elgoibartarrak estreinakoz hartu zuen parte Valentziako maratoian, eta 2:34:23ko denbora eginda minutu eta 18 segunduan ondu zuen bere marka pertsonala, 2021eko Bilboko maratoia 2:35:41eko denboran egin baitzuen.

Sanloko jokalariak eta entrenatzaileak Gipuzkoako eskubaloi selekzioekin aritu dira Errioxan



Kadete eta jubenil kategorietako Gipuzkoako eskubaloi selekzioek lagunarteko partidak jokatu zituzten joan zen asteburuan, Errioxako selekzioen aurka, eta Sanloko hainbat ordezkari deitu dituzte Gipuzkoako selekzioarekin aritzeko, bai eta horiek entrenatzeko ere. Izan ere, hautatzaileetako bat Lorea Gabilondo elgoibartarra izan da. Kadete nesken Gipuzkoako selekzioa zuzendu du Sanlo kirol taldeko emakumeen taldeetako koordinatzailea den Gabilondok. Hirugarren urtea izan du aurtengoa zeregin horretan. Sanloko bi kide izan ditu lagun entrenatzaile lanetarako, Nagore Silvan

eta Jurgi Casado. Teknikoez gainera, Sanlon diharduten zazpi jokalari aritu dira Guipuzkoako selekzioekin. Bost, kadete nesken taldearekin; honakoak: Malen Merino, Sare Iriondo, Ane Alberdi, Elene Fernandez eta Jone Kortaberria. Bat jubenil nesken selekzioarekin: Nahia Urbiola; eta, Asier Antxustegik jubenil mutilen taldearekin jokatu du. Kadete nesken selekzioak 21 eta 24 irabazi zion Errioxakoari. Nahia Urbiolak jokatu zuen jubenil nesken mailako neurketan 30-28 gailendu zen Errioxako selekzioa. Era berean, jubenil mutilen arteko lehiari ere errioxarrak nagusitu ziren, 35-28ko emaitzarekin.

Haur Krosa jokatu dute bihar Mendaron

Hiru urteko etenaren ostean, bueltan da Mendaron Haur Krosa. Bihar, hilak 23, jokatu dute Mendaroko Txirrindulari Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen lasterketa. Mendarozabalen izango da proba, eta adinka banatuta arituko dira korrika HH5etik LH6ra arteko neska-mutilak. Lasterketan parte hartzeko izena eman beharko da, han bertan, 16:15etatik aurrera.

Helduagoek urteko azken egunean jokatu dituzten San Silbestre lasterketan izango dute saltaka egiteko aukera. 17:00etan hasiko dira Mendaron eta Elgoibarren abenduaren 31rako antolatu dituzten San Silbestre lasterketak.



Elena Agirre kantabriarra gailendu da Emakumeen Xake Txapelketan

Torrelavegako Solvay taldeko bi xakelari izan dira onenak Elgoibarko Emakumeen Xake Txapelketan. Joan den zapatuan jokatu zuten Zubi Ondo xake taldeak antolatzen duen xake txapelketaren hirugarren ekitaldia, eta hainbat herritatik etorritako 22 xakelari batu ziren Aita Agirre Kultur kafean, iaz halako bi. Kantabriako egungo txapelduna den Elena Agirre Mediavillak lortu zuen titulua, jokaturako bost partidak irabazita (5 puntu). Aguirrek Solvay xake taldean taldekide duen Eluney Prats sailkatu zen bigarren postuan, lau partida irabazita (4 puntu) eta Santurtzi Xake Eskolako kide Xian Ting sailkatu zen hirugarren postuan, 3,5 punturekin. Zubi Ondo Xake Taldeko ordezkariak dagokionez, sailkapeneko 16. postua eskuratu zuen Alaitz Pascualek, bi punturekin. Adin tarteka honakoak izan ziren irabazleak. Kadeteen artean, 2007. eta 2008. urteetan jaiotakoen artean, Elorrioko Irati Gallastegi izan zen onena. Infantil mailan (2009-2010) Oriana Caycedo sestaoarra gailendu zen, eta gainera, sailkapen nagusiko laugarren postua eskuratu zuen. Alebinen artean Garazi Lamborena santurtziarra izan zen onena. Zubi Ondok xake txapelketa ere antolatu du abendurako, Tomas Conderen Omenezko Xake Txapelketa, hain justu ere. Bihar, abenduaren 23an, jokaturako dute Olaizaga kiroldegian (16:30). Taldekako txapelketa izango da, eta hiru xakelarik osaturako dute talde bakoitza.



Jo ta Sua peñaren 25 urteko historia jasoko dute erakusketa batean



Realak 40 bat kirol-lagunarte ofizial ditu eta horietako bat da Jo ta Sua. Elgoibarko Realzaleek sortu zuten 1998. urtean, eta aurtan 25 urte bete dituztela ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte. Hasteko, erakusketa bat antolatu dute, *Elgoibartarrak eta Realak, 1998-2023* izenburupean. Kultur Etxeko erakusketa gelan zabalduko dute erakusketa, eta abenduaren 26tik 29ra bitartean bisitatu ahal izango da, 08:30etik 20:00etara bitartean. Urtarrilerako, berri, mahai-inguru bat egingo dutela aurreratu dute, eta mahaikideak azken 25 urteotan Realean jokatu duten jokalarik elgoibartarrak izango direla zehaztu dute.

LANA**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan.

Beharrezko titulazioa daukat eta esperientzia handia.

Ospitalean zaintza lanak egiteko prest. **632 229 972**

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago, baita gauak pasatzeko ere. Esperientzia handia. **632 229 972**

Lanerako prest nago. Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan egingo nuke lan. **634 196 236**

Adinekoak zainduko nituzke. Titulo soziosanitarioa daukat. Goizez egingo nuke lan. Asteburuetan lan egiteko prest, nago, gauaz ere bai. Esperientzia daukat. **631 125 127**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauetan edota asteburuetan. Behar den titulazioa daukat.

631 020 169

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsaldean eta asteburuetan.

646 821 678

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta jai-egunetan, orduka.

631 425 686

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Esperientzia.

624 316 594

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia handia daukat.

641 756 213

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Esperientzia handia. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.

624 416 776

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan jardunaldi osora. Esperientzia handia.

612 270 162

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa zein ostalaritza alorreko lanak egiteko prest nago. **663 102 472**

ETXEBIZITZAK

Baserrira partekatuko nuke. **943 741 909**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Alkartasuna</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p>Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Lokal komertzial baten jabea naiz, eta komunitatean aseguru komunitario bat kontratatzea pentsatzen ari dira. Komunitatearen aseguru-gastuetan parte hartu behar dudana jakin nahi nuke.</p> <p>Erantzukizun zibileko aseguruak jabeen komunitateari eragin diezaiokkeen arriskua estaltzen du, baldin eta elementu, zerbitzu eta instalazio komunek ezohiko funtzionamenduaren ondorioz hirugarren bati eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra bada. Era berean, higiezin suntsitzen bada, jabe guztiak, lokalekoak barne, diru kopuru bat jasotzen dute kalte-ordain gisa. Alde horretatik, aseguruaren prima higiezinaren bizigarritasun egokirako beharrezko gastutzat hartzen da. Beraz, nahitaezko gastua da, derrigortasuna ezartzen duen lege-xedapen bat egon ala ez. Eta ondorioz, komunitateko guztiak parte hartu behar dute bertan, salbuespenik gabe, etxabe edo lokal jabeek barne.</p> <p>Ondorioa: komunitateak bere gain hartzen duen erantzukizun zibila ezin da ulertu hainbat jabekiko gastu multzokagarri gisa. Ezin da alegatu lokalak bertan sartzen ez direnik. Izan ere, poliza hori elementu komunei buruzkoa da, eta agerikoa da lokal bakoitzak partaidetza-kuota bat duela elementu horietan, eta ezin zaiela uko egin. Polizaren helburua elementu komunen ondoriozko erantzukizun zibila estaltzea denez eta ez jabetza pribatiboena, aseguru propioa izateak ez du kentzen aseguru orokorra kontratatzea. Beraz, azken batean, nahitaezkoa da lokal komertziala aseguruari sartzea.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Igor**, txapeldun, abenduaren 30ean, 10 urte! Familiakoen, arreba Idoiaren eta lehengusu Mikel eta Nerearen partez.



Zorionak, **Alex**, txapelduna! Azkenean iritsi da zure eguna! 8 urte, mutil handi! Muxu handi bat familia guztiaren partez! Asko maite zaitugu!



Urte on askotarako, **Ihintza!** Jada esku bete bira eguzkiari! Ederki ospatuko dugu bihar zure eguna. Muxu handi bat maite zaitugunon partez.



Urte bukaera luze egin zaizu, baina azkenean iritsi da zure eguna! 7 alaitasun urte! Zorionak, **Unai!**

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Gabon zoriontsuak eta urte berrio on!



22 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

18:00 'Drimuns, argitzen eta sentiarazten duten sorkuntzak'. Kalejira, Elgoibarko kaleetan. Euria bada, udaletxeko arkupeetan.

19:00 Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokian.

23 ZAPATUA

16:30 Xake txapelketa, Tomas Conderen omenez. Zubi-Ondo elkarteak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

17:00 Haur Krosa, Mendaron. MTE-k antolatuta, Mendarozabalen.

24 DOMEKA

10:00 Olentzero eta Mari Domingi San Lazarora eta Eguneko Zentrora joango dira kantuan.

11:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Maalatik hasita. Segidan, gutunak jasoko dituzte, Kalegoen plazan.

13:00 Udal Musika Bandaren kalejira. Maalako parkean hasita.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Mendaron, Moxuanetik. 18:30ean egingo diete harrera, udaletxean (euria bada, Trinitaten).

19:00 Presoen eskubideen aldeko kantaldia. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

26 MARTITZENA

18:00 Mauxitxa txarangaren kalejira. Euria bada, udal arkupeetan.

18:30 Jo ta sua Realeko peñaren 25. urteurreneko erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai, hilaren 29ra arte.

27 EGUAZTENA

11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30 Puzgarriak, Mendaroko ikastolan.

28 EGUENA

18:30 'Horra horra, Biraka'. Biraka dantza taldearen dantzaldia, herriko kaleetan.

20:00 Gabonetako bertso jaialdia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

29 BARIKUA

18:00 Mendaro herria sortu zeneko 40. urteurreneko ekitaldia, udaletxean. Segidan, Bizi-poza txaranga.

18:30 Betisua txarangaren kalejira. Euria bada, udaletxeko arkupeetan.

20:00 Giltzakatea. Sarek antolatuta, Kalegoen plazatik Maalara.

21:00 Euskadiko Idi Kintopekoen finala. Sigmako probalekuan.

30 ZAPATUA

12:30 Landarbaso kontzertua Mendaron, San Agustin kulturgunean. Doan.

31 DOMEKA

17:00 San Silvestre lasterketa. Casa Astigarraga Trail Morkaiko taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

17:00 San Silvestre lasterketa, Mendaron. MTE-k antolatuta.

2 MARTITZENA

18:00 Gabonetako zaldizkoen kalejira, Elgoibarren. Euria bada, ikastolako frontoian.

3 EGUAZTENA

11:00 - 13:30 / 17:00 - 19:30 Txu txu tren, Txankakuak antolatuta, Elgoibarko kaleetan.

4 EGUENA

18:00 'Artistas del gremio'. Erdiguneko kaleetan. Euria bada, udaletxeko arkupeetan.

11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30 Puzgarriak, Mendaroko ikastolan.

Zinea Herriko Antzokian

'Ocho apellidos marroquis'

22, barikua: 19:00

23, zapatua:

19:00 / 22:15

5, barikua: 19:00

6, zapatua:

19:00 / 22:15

7, domeka: 19:00

8, astelehena: 21:00

'Vidas pasadas' (Ongarri)

27, asteazkena: 21:00

29, barikua: 19:00

30, zapatua:

19:00 / 22:15

GABON ZAHAR FERIA

30 ZAPATUA

08:30 - 14:30 Erakusketa eta salmenta: baserriko fruta, barazkiak, animaliak eta tresneria. Kalegoen plazan, elizpean, Aita Agirren, Giza Eskubideen parkean, eta Pedro Migel Urruzunon.

09:00 - 20:00 Parrokiako jaiotza.

10:00etatik aurrera Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

10:00 - 14:30 Elgoibarko artisauen azoka, Maalan.

11:30 Elgoibar Ikastolak txosna zabalduko du, Kalebarren plazan.

12:00 Urteko Gazta Onenaren txapelketa. Udaleko areto nagusian. Kalamua elkarteak antolatuta.

12:30 'Plazara dantzara' erromeria. Lekuederren.

13:00 Bertso saioa: Uxue Alberdi, Millan Telleria eta German Meabebasterretxea.

13:30 Sari banaketa. Udaletxean.

19:00 Kittu taldearekin, kalejira. Kalegoen plazatik.

2023 eta 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

ABENDUA

Egunez

22 BARIKUA..... Yudego

23 ZAPATUA..... ■ Oruesagasti
..... ■ Garitaonandia

24 DOMEKA..... Yudego

25 ASTELEHENA..... Yudego

26 MARTITZENA..... ■ Ibañez

27 EGUAZTENA..... Garitaonandia

28 EGUENA..... Arriola

29 BARIKUA..... ■ Fernandez

30 ZAPATUA..... Yudego

31 DOMEKA..... ■ Ibañez

URTARRILA

Egunez

1 ASTELEHENA..... ■ Ibañez

2 MARTITZENA..... Barrenetxea

3 EGUAZTENA..... ■ Ibañez

4 EGUENA..... Garitaonandia

5 BARIKUA..... Arriola

2023 urte guztian, gauez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño -

Julian Etxeberria, 7 (Eibar) - 943 203 052

2024 urte guztian, gauez: Lekunberri Alberdi,

Mikel Isasi, 31 (Eibar) - 943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384



Aste honetako erretratu zaharra Ana Artetxek bidali du BARRENERA. Jose Cruz Igartua apaiz egin zenetik 50 urte bete dira aurtan, eta Ana Artetxek gogora ekarri nahi izan du Igartuak Elgoibarren betetzen zuen beste eginkizun bat. Garai hartan, Gabon kanten txapelketa egiten zen herrian, eta Jose Cruz Igartuak prestatzen zuen taldea. Esan dutenez, txapelketa hau irabazi ere egin zuten urteren batean. Argazki hau Ubitarte zentroan aterata dago. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak:

Jose Cruz Igartua, Ana Artetxe, Maria Isabel Berasaluze, Ane Larrañaga, Jone Garcia eta Mari Carmen Clerigué.




Maria Urizar
lleopaindegi • Peluquería
943 74 44 89
San bartolome kalea, 15
20870 Elgoibar
Gabon zoriontsuak!
@ f s



SANSON AROZTEGIA
JOSEBA IRIONDO
619 793 653
sanson.aroztegia@gmail.com



ÂNDARA

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK



San Bartolome kalea, 12



Toletxe kalea



Iñigez Karkizano kalea



Errosario kalea, 4-6

Anahi de la Cruz

M: 688 724 122

Bernardo Ezenarro kalea, 15 behe - Elgoibar

info@andaragestion.com

688 724 122 / 943 748 427

GABON
ZORIONTSUAK
GUZTIO!



EAJ
PNV

egi